



## Ezkontza

Gehigarri berezia → 9-17

### BERA → 19

Gerran fusilatutako eta desagertutako omenduak

### SUNBILLA → 25

Eskola Ttikien Joku Topaketa hilaren 26an

### GOIZUETA → 33

Suhiltzaile boluntarioak saritu ditu Foruzaingoak

### BAZTAN → 38

Bariantetik Elizondorako sarbidea eztabaidan



18. KORRIKA | Andoain-Baiona, martxoaren 14tik 24ra

## Saratik sartu eta Baztandik aterako da asteburu honetan

Igande goiz horretan (04:20 aldera) sartuko da Saran eta Lizuniagatik Berara pasatu ondok, Bidasoan gora segituko du Baztan aldera (08:54 Elizondon) eta hortik Artesiagan barrena Esteribar aldera joanen da.

Duela bi urte bezala, oraingo honetan ere euskararen aldeko lasterketarik handienak ez ditu Leitza-Goizuetan inguruko herriak zeharkatuko. Dena dela, Korrika nagusiaren arrimuan, aurtengoan ere hainbat Korrika Ttiki eta kultur ekitaldi antolatu dira han eta hemen.

ELKARRIZKETA | Estebe APEZETXE → 3  
HERRIZ HERRI → 35

Otsailean, hamar langabetutik lauk ez zuen inolako langabezi-prestaziorik kobratzen

Datuak herrikoa → 27


DONEZTEBEKO ENPLEGU BULEGOAN

**1.536** langabe  
2013ko otsailean

### ERREPORTAJEA → 4-5

## Atzerrira joanak lan etorkizun baten bila

Amaia Lujanbio, Julen Etxebeste eta Gari Etxeberria atzerrian daude lan etorkizun baten bila joanak. Ez dira joan diren bakarrik.



Apirilak 13, larunbata

### Euskarazko komunikabideen aldeko kantaldia Elizondoko Lur Dantzalekuan

Kantariak: Erramun Martikorena eta Joxe Anjel, Amaia Zubiria eta Edorta, Petti. Ordua: 22:00

### MUS TXAPELKETA

## Xorroxin, Xaloea eta Ttipi-Ttaparen alde

Apirilaren 6an izanen da finala Sunbillako Ulibeltzak Elkartean. Bitartean herrietako txapelketak ari dira jokatzeko. Ikus hurrengo asteotako egutegia herriz-herriz. → 50

ZOKKETAK → 2



Txartela egiteko deitu **948 63 54 58ra**



ttipi-ttapa fundazioak

www.cajanavarra.com

Proiektu zik: 50063

zure laguntza behar du

Nafarroan eroldatutako 18 urtetik gorako guztiek parte har dezakete

ZUK AUKERATU ZUK ERABAKI 2013



comunal



ttipi txartelarekin **beti rabazten da!**  
deskontuak + zozketak + aldizkaria musu truk

Eskatu zurea 948 63 54 58 telefonoan

**585. ALEKO IRABAZLEAK**

- \* ELKAR 3 LIBURU  
Pedro Arretxea | AZPILKUETA  
M\* Kamen Sansifena | ETXALAR  
Amalia Goia | BERA
- \* AQUARIUM 2 SARRERA  
Blanca Bikondo | IRURITA
- \* KIKE MORA CDa  
Mikaela Azkaraga | URDAZUBI
- NAFARROAKO BERTSOLARI TXAPELKETA  
ELIZONDOKO KANPORAKETA - 2 SARRERA  
Gurutze Pikabea | ARANTZA  
Miriam Altzur | ITUREN
- BERTSU DVD + M'C TXIRRITA CDa  
Arkaitz Mindegia | ITUREN
- \* URTXINTXA ESKOLA  
PUNPALAPLAN CD + DVD  
Juan Luis Alkorta | ZUGARRAMURDI



**KAMISETA BAT**  
Onddo ta puntu  
[www.onddotapuntu.com](http://www.onddotapuntu.com)



**AQUARIUM 2 SARRERA**  
Donostiako Aquarium-a  
[www.aquariumas.com](http://www.aquariumas.com)

deskontuak

**AYLA**  
argazkigintza  
BERA | %10 karnet argazkietan

**IPINGI**  
ELIZONDO  
%10, 30etik gorako gastuan

**IPARLA**  
kirolak  
ELIZONDO  
%8, 30etik gorako gastuan

**CASA OSTIZ**  
DONEZTEBE  
%10eko deskontua oinetakostan

**ARRATE E/TETIKA ZENTROA**  
DONEZTEBE | %10 "Skeindor  
Eternal" krema guzietan

**Kimetz**  
Balardonda  
DONEZTEBE | %5 kosmetikan



**3 LIBURU**  
Erein argitaletxeak  
[www.erein.com](http://www.erein.com)




**NAFARROAKO BERTSOLARI TXAPELKETA**  
IRUNEKO FINALA  
2 SARRERA + 2 SARRERA  
[www.nafarroakobapelketa.com](http://www.nafarroakobapelketa.com)



**Estankona Cda**  
Baga Biga argitaletxeak  
[www.baga-biga.com](http://www.baga-biga.com)



**LANKU liburu + DVD**  
Lanku argitaletxea  
[www.lanku.com](http://www.lanku.com)



Koskontako bidea 7, 31770 LESAKA  
Tel. 948 635 458 Fax 948 635 457  
info@ttipi.net www.ttipi.net

Andoaindik Baionara. Hamaika egunetan Euskal Herria zeharkatuko du Korrikak. Eskualdera martxoaren 17an, igandean, iritsiko da. Lekukoa Saran hartu eta

Bortzirriak, Bertizarana eta Baztango zenbait herritatik igaroko da. Azken egunean, martxoaren 24an, Baionara iritsi aurretik Azkaine eta Senperera egingen du bisita.

Milaka izanen dira AEKren alde metroak egin edo urte osoan zehar diru laguntza emanen dutenak. Guztia beharrezkoa, euskalduntze prozesuari bultzada emateko.

Estebe APEZETXE | Korrika arduraduna

# «Korrikari esker bakarrik ziurtatzen dugu AEKren biziraupena»

E. IRAOLA

**Eman euskara elkarri da leloa. Zer erran nahi du?**

Euskararen oinarritutako elkarbizitza aldarrikatzen du. Aitzineko eta gibleko hitza euskaraz egitea posible egingen duen bizikidetzat. Ez dakienak dakienari erakutsiz; solastu ez, baina ulertzen duenak euskaldunei euskaraz hitz egiteko aukera emanez... Elkarrekin solasteko, elkar entzuteko eta ulertzeko hizkuntza izan behar du euskarak. Hizkuntzak guztiok behar baikaitu: euskaldun zahar eta berriak, dakitenak eta ez dakitenak, elkarrekin. Kohesiorako lehengaita eta tresna izan behar du euskarak.

**Euskalduntzen eta alfabetatzen ari direnak omenduko ditu Korrikak. Eskualdean zein da arlo horretan egoera?**

Gure eskualdea euskalduna da, horregatik ez dago ikasle potentzial aunitzirik. Ehuneko tikiak dira erdaldunak eta horrek sarritan arazoak sortzen ditu taldeak osatzeko orduan. Bertalde, badira urtetik urtera goiti doazen egitasmoak, solaslagnena kasu. Txalotu egin behar dira ekimenean parte hartzen duten bi alderdiak. Astean behin elkartzeko konpromisua hartu eta betetzen



UTZITAKO ARGAZKIA

Estebe Apezetxe, AEKko irakaslea eta Korrika arduraduna, aurtengo kartelarekin.

duten euskaldun zahar eta berriak.

**Zein da AEKren egoera Nafarroan?**

Ikasle kopuruari dagokionez, ez da jeitsiera handiegirik egon, baina igoerarik ere ez. Afera da, Nafarroako diru laguntzak urtetik urtera tikiagoak direla. Hain dira tikiak, kasik ez direla existitzen ere erran litekeela. Horregatik da hain garrantzitsua AEKrentzat Korrika. AEKren biziraupenean, euskalduntzeko prozesu horretan bultzada ikaragarria da. Korrikari esker bakarrik ziurtatzen dugu AEKren biziraupena. Noizbait matrikulak

## AFERA

**«Nafarroako diru laguntzak urtetik urtera tikiagoak dira. Hain dira tikiak, kasik ez direla existitzen ere erran litekeela. Horregatik da hain garrantzitsua AEKrentzat Korrika. AEKren biziraupenean, euskalduntzeko prozesu horretan bultzada ikaragarria da»**

dohainik izatea nahiko genuke. Denon eskura jartzea euskara ikaste-ko aukera. Gaur egun, saiatu arren, hori ezinezkoa da.

**Jendearen laguntza garrantzitsua da...**

Mundu guztia gonbidatu nahiko nuke Korrikan parte hartzerako. Norberak ahal edo nahi duen moduan eman dezake laguntza hori. Batzuk kilometroak erosiko dituzte, besteak Korrika Laguntzaile izanen dira hamabi euroren truke. Komertzioak Korrika Lagun izan litezke. Zenbaitek laisterka egin edo ekitaldi kulturetan parte hartuko dute...

**Herrietan batzordeen laguntza ere baduzue.**

Azpimarratu eta esker-tu egin behar da eskaintzen duten laguntza guztia. Motor lana zenbaitetan herritarrek bearaiek egiten baitute. Lan ikaragarria da eta pertsona horien laguntzarik gabe ezinezkoa litzateke Korrika aitzinerat eramatea.

**Korrika iristear da, aurretik ekitaldi kulturetalak prestatu dituzue eskualdean?**

Urtean zehar egin dira eta orain ere bada aukera. Baztanen Bertso Korrika dugu martxoaren 15ean, euskaldun berrientzat egokitutako bertso saioa da eta ondortik, trikitalarien laguntzaz bertso musikatuak izanen dira. Bortzirietan, martxoaren 16an, larunbatean, izanen da egun handia. Euskara ikasleei omenaldia egingen diegu Lesakan. 18:00-etan plazatik abiatuta Korrika sinbolikoa egingen da. Bortzirietako Korrika izena eman diegu. Bortz lekuko aldaketa izanen direlako, herri bateko ikasleek beste herrikoei emanen diete lekukoa. Segidan, omenaldi ekitaldia izanen da plazan. Dantzari, trikitalari, bertsolari eta euskaltegiko ikasle eta irasleek hartuko dute parte eta taloak jateko aukera ere izanen da.

GIZARTEA → ATZERRIRA LAN BILA

# Eskualdetik atzerrira, lan etorkizun baten bila...

Bataz beste, urtean 278 lagun joaten dira lan bila Nafarroatik kanpora

Krisiaren itzaletik ihes, geroz eta gazte gehiagok hartu dute atzerrirako bidea. Batzuk lanean ari dira eta bertzeak berriz oraindik bila.

Denboraldi baterako egiten dute maleta. Noizbait, bilatzen duten lan eskaintza hori etxean aurkitzeko esperantza ez baitute galdu.

ketekin jarraitu ahal izateko. Julen eta Garik berriz, lan egiten duten bitartean herrialde hartako hizkuntzan trebatu eta maila hobetzeko probestu nahi dute.

te zuenak ere komeriak izan zituen.

Oraingoz esperientzia aberasgarria izaten ari dela diote hirurek, baina ez dute Euskal Herritik begirada gehiegi aldentzen. Milaka kilometrotara lan egin beharrean, beraiek ere nahiago lukete, etxetik hurbil lan egitea. Ahuntzak larrera itzultzen diren gisara, haiek ere, egunen batean etxera itzultzea dute buruan.

## Eneritz IRAOLA

Poltsikoak haizez beteta batzuk, lan eskaintza bati segiz besteak. Geroz eta gehiago dira sorterritik kanpora lanera joaten diren gazteak. Lehendabiziko egunetan denek antzeko sentimenduak bi-

zi dituzte: ilusioa, herri mina eta herrialde berri batean egoteak sortzen duen izu puntua. Gari, Julen eta Amaia, Leitza, Doneztebe eta Goizue-tatik joan ziren. Hegazkin ez ordu eta erdira bat, bidaia luzeagoa egin zuten bertze biek ozeano-

ak tarteko. Euskal Herrian ez zutena topatze-ko, atzerrira begiratu behar izan dute.

Herrialdea ez dute itsu-mustuan aukeratu. Amaiak esate baterako, zientzia munduan erreferentea den herrialdea aukeratu du bere iker-

Hizkuntza horixe bera, akuilua izaten da hasieran. Eguneroko harreran guztiak ozta-ozta menperatzen duten hizkuntza batean egin behar izaten baitituzte. Ingelesa ongi menperatzen zuela us-

## GARI ETXEBERRIA, LEITZATIK ZELANDA BERRIRA

*«Lan kantitateari begiratu beharrean, egindako lanaren kalitateari ematen diote garrantzia hemen»*

Urte hasieran iritsi zen Gari Etxeberria Aucklendera. Leitzako kale lasaiak, Zelanda Berriko 1.300.000 biztanleko hiriatatik aldatu zituen. Hemen lan egiten zuen enpresaren egoera zaila zela ikusita, «3-4 hilabeteko atzerapenak genituen soldatetan, lan eskaintzarik ez eta gaur egun ingelesa ere edonon eskatzen dizute» urte beteko eszedentzia hartu eta atzerrira joatea erabaki zuen. Hainbat aukera esku artean ibili ondotik, «Zelanda Berriko paisaiak, lan eskaintzak eta bertako jendeari buruz entzundako iritzi onak» bertara eraman zuten.

Lehenengo egunak «arraroak» izan zirela aitortu digu «ingeles ez nekien deus». Herritik hirirako aldaketa ere «handia izan zen, inor ezagutu ez eta hizkuntza jakin gabe, komeriak izan nituen». Lehenengo egunetan, hizkuntza eskolaren bidez hango familia batekin bizi izan zen, baina egun, aparte-ko etxebizitza batean bizi da «kataluniar eta txiletar batekin».

Momentuz, ingelesa ikasten ari da, «lan egiteko oinarrikoa baita». Behin maila bat lortzen duenean, hurrengo pausoa lan bila hastea izanen da. Lan eskaintzak badaudela dio eta gaineratzen du «soldata ttikienarekin bizimodu txukun bat» eduki litekeela han.

Zelanda Berrian, lanerako filosofia desberdina dutela nabaritu du «Euskal Herrian ahalik eta lan gehien egitea izaten da helburua, askotan presaka. Hemen berriz, egiten dena ongi egiteari ematen zaio garrantzia». Izan ere, lana topatzera-koan jartzen duten baldintzetako bat horixe da, «lanean giro



Gari Etxeberria leitzarra, urte hasieran joan zen Zelanda Berrira

ona sortzea eskatzen dizute». Gehien harritu duena ordea, lehenengo sektoreari ematen zaion garrantzia izan da «gobernuak ikaragarrizko laguntzak ematen dizkie nekazariei eta oso ongi ordaindua dagoen lan bat da. Euskal Herrian halako laguntzak bagenitu...».

Atzerrian bizitzeko oztoporik handiena egin beharreko trasteak dira bere ustez «inmigrazioarekin oso zorrotzak dira. Hiru hilabete baino gehiagok bizi nahi baduzu hemen, eskolaren batean izena eman edo bestela *Working holiday* baime-na eskuratu» behar duzu. Baimenak lortzeko biderik azkarrena «bertako enpresa batek lan eskaintza egitea» da.

Printzipioz, urte bete behintzat emanen du etxetik kanpo. Euskal Herria itzuliko dela dio, «euskaldunok lotura berezia baitugu gure herriarekin». Noiz itzuliko den ordea ez daki, «hemen bilatzen dudana lanaren eta Euskal Herriko egoeraren menpe egonen da erabaki hori».

**JULEN ETXEBESTE, DONEZTEBETIK INGALATERRARA**


## «Ingalaterran ez dut krisi hitza hainbestetan aditzen, lan aukera batzuk badaude hemen eta Euskal Herrian baino lasaiago bizi naiz»

Euskal Herrian lanik topatzen ez zuela ikusita «kanpora joatea aukera ona zela» pentsatu zuen Julen Etxebestek. Maleta egin eta Ingalaterrara, Yorkshire ingurura joatea erabaki zuen «ingeles apur bat banekienez, lan egin bitartean hizkuntza maila hobetzeko aukera izanen nuela pentsatu nuen». Hara joan aitzinetik, lan agentzia batean izena eman eta haiek elkarriketak topatu zizkionten, «ez nuen arriskatu nahi hona etorri eta ezer ez aurkitzera». Agentziakoek elkarriketak prestatu zizkionten eta ez zitzaion gehiegirik kostatzen lanpostua lortzea «lehenengo elkarriketan ezezkoa jaso nuen eta bigarrenean baietz erran zidaten». Iritsi eta egun gutxiren buruan, Walsford herriko hotel batean hasi zen lanean. Datorren hilabetean urtea beteko du bertan.

Hasiera ez zen erraza izan, «ingeles pixka bat banekiela uste nuen, egunerokoan moldatzeko adina bai. Ingelesez bizitzen hasitakoan ohartu nintzen, solasteko orduan, nire ingeles maila nahiko kaxkarra zela». Baina, jendearekin konfidantza hartu orduko «lotsa galtzen hasten zara eta hori da garrantzitsuen hizkuntza bat ikasteko. Nongoa zaren eta nor zaren azaldu nahi eta ezin izatek, ongi moldatzera pasatzen zara».

Atzerritar aunitz bizi den ingurua da eta «azken aldian, lan bila etorri den gazte kopuruak gorantz egin duela» nabaritu du Julenek. Bertako eta atzerritarren artean elkarbizitza ona dela iruditzen zaio, baina desberdintasunak begi bistakoak direla gehitzen du «ingelesak beste maila batean daude. Herrialde aberats g-

Julen Etxebeste,  
Doneztebeko gaztea.  
Walsford herriko hotel  
batean ari da lanean.



hienetan gertatzen den bezala, lan mota batzuetan atzerritarrak bakarrik aritzen dira». Oztopoetako bat ere horixe dela dio, «bertako jendearekin harreman ona izan arren, beraiek beti atzerritar bezala ikusten zaituzte eta horrek lanean hobetzeko ez du laguntzen».

Euskal Herriak bizi duen egoera ekonomikotik urruntzea lortu du horrela, «Ingalaterran bizita, ihes egin izan banu bezala da, ez dut krisi hitza hainbestetan aditzen, hemen lan aukera batzuk badaude eta han baino lasaiago bizi naiz».

Oraingoz lanpostuz igotzea lortzen badu «pixka batean bertan geldituko naizela» uste du. «Hizkuntza aldetik aunitz dut oraindik hobetzeko». Esperientzia oso aberasgarria dela dio eta «ahal duenari atzerrira lan bila joatera animatuko» lioke. Gustora dago bai, baina ez da betiko han geldituko «nire tokia Euskal Herrian dagoela uste dut, horregatik, ahal dudanean bueltatu egingen naiz».

**AMAIA LUJANBIO, GOIZUETATIK ESTATU BATUETARA**

## «Nire ikerketekin segitu nahi nuen eta gauza berriak ikasi. Horretarako aukera hoberenak atzerrian daude»

Goizuetatik New Yorkera egin zuen jauzi Amaia Lujanbiok. Biologian doktoratua, txikitatik naturak eta bereziki biziak jakin-mina sortu izan dio. Jakin min horri tiraka, erabaki zuen «ikerketekin segitu eta gauza berriak ikasteko atzerrira joatea».


Ikerketen kopurua eta kalitatea, laguntza ekonomikoaren araberak doala azaldu digu eta ildo horretan, arazoa dela «Euskal Herrian ez dugula laguntza askorik». Kalitatezko lan eta proiektuak burutan ibili arren, «etxean lan egiteko aukera gutxi dago».

Minbiziaren arloan punta puntako ikerketak egiten ari da orain, Manhattango Memorial Sloan Kettering Cancer Center-ean. Bertan, «munduko ikerlari hoberenekin lan egin eta haietatik ikasteaz gain, pentsatzeko moduak ere» ikasten ari dela aipatzen du. Hain zuzen, Ameriketako Estatu Batuarren eta euskaldunen arteko desberdintasun nabarmenena, «kultura eta mentalitatean» dagoela dio, «Amerikarrek ez dute izurik proiektu berri bat hasteko, horregatik dira aurrenak gauza askotan».

New Yorkera etorri baino urte bat lehenago hasi zen lan bila, «bi elkarriketa izan nituen Bostonen eta beste bi New Yorken. Hemengo laborategia gustatu zitzaidan gehiena eta zortea eduki nuen, lanpostua bertan eman zidaten».

Lehenengo hilabeteetaz galdetuta, erran digu hizkuntzarekin ara-

Amaia Lujanbio  
Manhattanen  
ikerketaren zentro  
batean ari da  
lanean.



zo bat edo beste izan zituela «nire ingeles maila ez zen oso ona eta pixka bat kostatzen zitzaidan ohitzea». Horretaz gain, atzerrian lan egitearen oztopo handiena «hasieran galdua sentitzea» da berarentzat eta «etxeak eta etxea faltan botatzea, eskerrak internetek distantziak laburtzeko aukera ematen duen».

Atzerrira joatea erabaki zuenean, Estatu Batuetan bost urtez egotea zuen burutan eta orain ere «5-6 urtez bertan lan egitea espero dut» erran digu. Hala ere, Euskal Herrian edo etxetik hurbilago dagoen beste herrialderen batean, lanerako aukerak izatea gustatuko litzaioke. Egunen batean, «ikasitako guztia etxera bueltan eramateko aukerarekin» egiten du amets.



**Nire txanda**  
Koro IRAZOKI

## Oiloen omenez

**A**nimale ximplea ematen du oiloak, baina filosofoak beraiei buruz arituak dira: «*zer izan ote zen lehenbizikoa, oiloa edo arraultzea?*» Eta nik oiloei buruzko berte burutazio bat eskaintzen datzuet: konturatu zarete zein *makina perfektak* diren oiloak? Arraultzei buruz ari naiz: nola deabru egiten dute egunero-egunero arraultze bat? Nola da posible 24 orduz oiloaren sabelean arraultze perfektu bat formatzea?

Oiloetaz gain, ote da ia-ia egunero arraultze bat paratzen duen bertze hegaztiren bat? Antzarak eta ahateek tarteka paratzen dituzte arraultzeak. Txoriek berriz, udaberrian...

Ez ditugu behar den bezala estimatzen oiloak. Gainera batzuetan zentzu txarrean erabiltzen dugu beren izena («*debru oilobustia!*», edo «*eres un gallina*»).

Nere iduriko, baserriko azienda baliotsuena oiloda, eta oihaneko erregea lehoia den bezala, baserriko erregina oiloak izan beharko luke.

Beraiek «*Ko-ko-ko-ko*» diote, hau da: «*Baietz-baietz-baietz*».

## Ezpala

Aitor AROTZENA

## Euskararen lekukoa

**K**-O-R-R-I-K-A. Korrika! Txis-pun! Asteburu honetan ailegatuko da gurera euskararen lekukoa eta urte osoan erabili gabeko txandala eta lasterkarako oinetakoak armario zokoan bila hasi gara aunitz. Baina txandala ez ezik, hizkuntza bera ere zokoren batean gordea izaten dutenek balia dezatela euskararen lekukoa urte osoan, eta ez bi urtetik behin, eramateko entrenamendu gisara.

## Nabarmentzekoak



**Migeltxo PRUAÑO**  
Baztan filmaren produktorea

Euskal Zinemaren Astean luzemetraiarik onenaren saria jaso du *Baztan* filmak. Elizondoko Migeltxo Pruaño produktoreak jaso zuen ikusleen bozekin erabakitako saria.



**Joxe ETXEBERRIA III**  
Otsaileko erremontelari onena

Oriamendi 2010 enpresak egindako *ranking*-an otsaileko erremontelari onena izendatu dute doneztebarrak. Bortz partidetatik lau irabazi eta bertzea tantu bakarrarengatik galdu zuen.



**Angel MARIEZKURENA**  
Mahai Inguruko kantuak II

Gure inguruko 15 kantarik egindako disko bakoitzaren salmentatik euro banako dohaintza egiten dute eskualdean beharrean daudenei. Dagoeneko 2.000 euro eman dituzte.

**Atzera begira → 2003.03.20 / TTIPI-TTAPA 346 zbk.**



## Migel Mari Urrutia eta Patxi Olazarren debuta profesionaletan

20 urte egin gabe, profesionaletan debuta egin zuten duela hamar urte Migel Mari Urrutia saldiastarrak eta Patxi Olazar doneztebarrak. Martxoaren 1ean elkarren kontra aritu ziren lehen partidaren eta Olazarrek Larrearekin 40-24 irabazi zien Uterga eta Urrutiari. «Biek ongi sakatzen dugu, baina paretaren arrimoman ikasi behar dugu» aipatu ziguten. Beraiekin, Malerrekako zortzi pilotari aritu ziren orduan profesionaletan. «Gehiago ari dira Donezteben eta Uhartan, baina urte pare bat esperatu beharko da debutatzeko», zioten. Hamar urte beranduago erremontean segitzen du Olazarrek eta Mexikon bizi da Urrutia.



**Argitaratzailea** Ttipi-Ttapa Fundazioa • **Egoitza** Koskontako bidea, 07-1 • 31770 LESAKA  
Tel. (+34) 948 63 54 58 • Faxe (+34) 948 63 54 57 • [info@ttipi.net](mailto:info@ttipi.net)

**Zuzendaria** Aitor Arotzena **Erredaktore burua** Gurutze Pikabea **Erredakzioa** Eneritz Iraola **Publizitatea** Usoa Vicente, Amaia Odriozola **Berriemaileak** Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar, Kontxi Klaber, Ainhoa eta Maider Ansa, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Iratzoki, Nerea Aitzuri, Joseba Urrotz, Irune eta Itsaso Elizagoien, Maite Oteiza, Maider Petrirena, Markel Lizasoain, Fermin Etxekolonea, Fernando Etxeberria, Izaskun Goñi, Joana Guereniain, Martin Bertiz, Nerea Telletxea, Mattin Larralde, Juan Mari Barriola, Joxean Ortega.

**Fundazioaren Presidentea** Pello Apeztexea **Kudeatzailea** Joxemanuel Irigoien **Administrazioa** Amaia Goia  
**Lege Gordailua** NA-1324/85 • **ISSN** 1578-4673 • **Tirada** 6.000 ale

**Erakunde laguntzaileak** Etxalar, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkarteak, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea

2013ko harpidetza sariak

Hego Euskal Herria	.....40€	Europa	.....59,50€	Baztan, Urdazubi eta Malerreka	.....34€
Ipar Euskal Herria	.....59,50€	Amerika eta Australia	.....124€	Leitza	.....17€



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak  
diruz lagundutako aldizkaria



Bortziritako Euskara  
Mankomunitateak diruz lagundua

## Kolaborazioak

# Euskara ez zen galdu bere kabuz

Xanti BEGIRISTAIN MADOTZ

**H**amaika aldiz entzun diegu euskararen aurkakoei (UPN, PP eta beste batzuk) esaten, euskara bere kabuz joan zela galtzen eta desagertzen Euskal Herrian, era natural batean. Badakit horien artean baten bat ezjakina izan litekeela, baina ez gehien-gehienak. Hala eta guztiz ere, gaur egun oraindik, behin baino gehiagotan entzuten dizkiegu halako argudio funsgabeak eta frogatu gabeak. Hona hemen, ordea, Interneten bidez ikus daitezkeen zenbait adibide. Historian zehar euskarari egindako debeku, eragozpen, galarazpen eta oztopoetari-ko batzuk; nik euskaratu, besterik ez dut egin. Ea, ba, Yolanda Barcina, Jose Iribas, Juan Luis Sanchez de Muniain, Enrique Maya jaun-andreak eta beste asko-asko gai ote diren frogatzeko, agirien bidez, beherago agertzen diren datuak faltsuak direla.

- 1768: euskara debekatu zen lehen hezkuntzan (Karlos III.aren Errege Zedula).
- 1772: euskarazko kontabilitate-liburuak debekatu ziren merkatarientzat (Karlos III.aren Errege Zedula).
- 1776: euskal liburuak debekatu ziren (Arandako Kondea).
- 1801: euskarazko antzerki mota guztiak debekatu ziren.
- 1803: eskolan euskaraz egiteagatik, gorputz-zigorak salatu ziren era partikularrean.
- 1857: eskolan gaztelaniaz soilik ikastera behartu zen (Moyano Legea).
- 1862: euskara debekatu zen jendaurreko izkribu guztietan.
- 1867: euskara debekatu zen idazlan dramatiko guztietan (Isabel II.aren Errege Agindua).
- 1902: euskaraz edota beren euskalkiaz irakasten zuten maisu-maistrentzako zigor-agindua (Alfontso XIII.a eta Romanonesen Errege Agindua).
- 1923: euskara galarazi zuten ekitaldi ofizialetan (Alfontso XIII.a eta Primo de Rivera).
- 1925: euskarazko testu-liburuak kendu zituzten, eta, gainera, enplegua eta soldata bertan behera uzten zitzaizkien hizkuntza horretan irakasten zuten guztiei.
- 1937: frankismoak euskaraz hitz egitea debekatu zuen.
- 1938: euskara erregistroetatik baztertu zuten.
- 1939: euskara baztertu zuten hotel-errotuluetatik.
- 1940: euskara baztertu zuten Auzitegi eta Merkataritzetatik.
- 1944: euskara debekatu zuten jendaurreko izkribuetan.
- 1947: euskara aldizkarietan galarazi zuten.
- 1948: euskara eskoletan debekatu zuten.
- 1954: euskara irratietan galarazi zuten.
- 1964: euskara diskoetan eta publizitatean debekatu zuten.

# Hegemonia

Mikel RODRIGUEZ LANDA

**B**ere historia ezagutzen ez duen herria, hura errepikatzen kondematuta dagoela erraten digu esarak. Lur azpitik bat-batean agertu balira bezala, hainbat jende harriduraz ikusten du orain zenbat ustelkeria kasu azaleratzen hasi diren. Ebasleek gobernatzen omen gaituzte, eta gu ez enteratu. Ezta ere hemen, Nafarroan. Zikinkeria mugitzen hasi da, hor dago Nafarroako Kutzaren inguruan agertu diren izen aski ezagunak eta zalantzaszko jarduerak. Eta zuzenean ustelkeria kasuak ez direnean, etikoki onartzeko zailak diren dietak, sosak eta bertzelako praktikak ikusten ditugu. Baina orain ikusten ditugu. Krisi ekonomikoa lehortu baino lehenagotik ere baziren orain salatzen ditugun boteretsu berberen praktikak kritikatzeko zituzten talde eta norbanakoak, baina iduri duenez frontis bati ari ziren garrasika. Bertze testuinguru bat zen. Yolanda Barcina, Miguel Sanz eta euren inguruko basailu berberak ziren orduan ere kritiken jomuga, baina jende aunitzek ez zuen aditu nahi. UPNko buruzagiak demokrotak ziren, etika lezioak ematen zituzten ezker-eskuin, ezkerrera gehiago, eta gehienbat euskaldunei, abertzaleei eta independentistek, Nafarroa eskuindar eta klasistan sinesten ez zutenei. Gure eskualdean ere, gure herrietan, gure ehunka bizilagunek, milaka batzuek, UPNri eman izan diote botoa. Jende langile eta euskalduna, bere suizidioa bozkatzeko. Orain haserrea argiago antzematen da karraketan, Iruñetik egunero ailegatzen zaizkigu protestaren baten irudiak, eta Baztan-Bidasoan, Sakanan... ez dira gutti mugimenduak. Baina UPNk egindakoa eta egiten ari dena larrutik ordainduko duela ez dut ikusten, larrutik ordaintzeaz hartzen badugu boterea denbora puska baterako galtzea, borrokatzeko zaila den gauza baten jabe baita Nafarroako eskuina: hegemonia. Nafarroan boto 'normala' UPN da, esfortzu guttiarena exijitzen duen papeleta, eta gure eskualdean ere, non logikari jarraituz espainolismo atzerakoi horrek alergia eman beharko liguken, ehunka boto lortzen ditu hauteskunderik hauteskunde. Demokraziaren eta jendearen borondatearen ondorio dela pentsa liteke, baina pentsa liteke ere hegemonia hori biolentziaren ondorio dela, eskuinak Nafarroan erakutsi duen basakeriaren ondorio. 1936an bertzelako Nafarroa bat eraikitzen ari zen belaunaldi oso bat garbitu zuten, fisikoki, eta hurrengo 40 urtetan nahi eran egonkortu zuten Nafarroa espainol, atzerakoi, integrista eta klasista. Transizioan ezin hobeki moldatu ziren odolaren bidez lortutako hegemonia hori mantentzeko, eta, ordutik, PSNren laguntza estimatuarekin, hor ditugu jaun eta jabe. 1936ko berberak. Eta gu enteratu gabe.

«Transizioan ezin hobeki moldatu ziren odolaren bidez lortutako hegemonia hori mantentzeko, eta hor ditugu jaun eta jabe. 1936ko berberak»

## Irakurleak mintzo

Sahara  
sahararentzat!Juainas PAUL (Saharaztan  
taldearen izenean)

2012an sumatzen genuen lotsa, aurten erraldoi bihurtu zaigu. Gobernatu itxurarekin agintzen gaituztenek aski garbi erakutsi digute, gure bizkar, emandako hitzak jateko duten erraztasuna, gosea... Saharrek, euren zoritxarreko, aspalditik, urtero, aldiro, ezagutu, jasan eta amorrutik egin behar izan dute gauza bera. Barru barruan, ariman idatziak dituzte Felipe Gonzalezek bere garaian erabili eta atzendu zituen promesak, askatasun eta autodeterminazioz beteriko aldarrikapen hutsalak.

Iaz Espainiako gobernuak aldatu zen. Dagoeneko, hurrengo honen gauza bera burutzeko gaitasuna duela erakutsi digu, beste behin. Hitzezko eskubideen defentsa, sahararren eskubideak, betiko estolden bidea hartu dute. Ez egiteagatik, Espainiako gobernuak ez du behar adinako kementa erakutsi ere Nazio Batuen ordezkariaren babesean.

Eta Marokoko terrorismoaren aitzakia abiarazi nahi du. Trukean, Europa/Espainiako mugen itxiera eskaintzen du, Sahara hegotarren bizkar. Udan, borondatezko laguntzaileen ekarriera gauzatzea lortu zuen eta, orain, Mali eta Aljerrekoa gertatua, gauzak alde dituelakoan dago.

Sahararren ekintzak deabrutu asmoz, Gdeim Izik kanpamendua

ren atxiloak militarki epaitu ditu. 2010eko urriro hartako 28 eguneko protesta baketsuak terrorismoa bihurtu nahi izan du. Bi urte pasata eta zenbait atzerapen ondoren, 24 preso politiko eraman ditu Rabatera. Haien salatzen dituzte bitartean jasadako tratu txarrak, torturak eta eskubideen urraketak. Antolatutako gezurtzat ematen ditu Marokok, iparraldean ikasita. Hala ere, arazo nabarmenena bere herrikide propioekin ditu. Milaka eraman ditu Sahara okupatura, baino ezta eurekin fidatzen eta autodeterminazio erreferenduma egingo balitz zein boto emango zuten beldur da. Marokorrek Sahara beste herrialdeetatik dutelako, alde batetik, eta bestetik Mohamed erregeaz libratzeko aukera hauta dezaketelako?

Saharara eramanak, "bertako" marokorrek egiten saiatzen darama hainbat urte, baino gutxi dira, ordea, sentieran barruratzeko; hango ustiapen-lapurretan partaideak egiten saiatzen da, hori bai, langile marokorren esploatazioa atzendu gabe eta sahararrek baztertuz; krudelena, dena den, sahararren aurka talde erasotzaileak, makilez eta antzeko tresneriez armatuak, antolatuta eta probokatzen dituen gauzatzen da. Sahara okupatuan aunitz izan dira. 2013ko otsailaren 1an, Rabaten, Tribunal Militarraren aurrealdean 50 marokor, saharar darragaz jantzirik, manifestatu ziren. Marokoko bandera zeramaten, Agdeim Izik kanpamendua erakusten zituzten



Bota bertsoa

Iban DUFURRENA • Doinua: Leihu ertzetik entzun dezaket

## Barcenas-en 'maitasun' gutunak

Karta azal bat izan daiteke gauza askoren testigu iberdrolaren poematxo bat edo maitasun kastigutxo ta maitasuna izan daiteke hain zabala badakigu Gutunak bat, bi ta hiru muxu truk hainbertze diru (bis) itxuraz Rajoy eta Barcenas "enamoratu" zaizkigu kupido batek Popularentzat "maitasuna" ekarri du (bis)

Maitasunaren andereñoen seme alaben batuketa Popularra bai, hala da noski baina herritarra ezta "zorientasuna" eskutik esku Euro, dolar ta pezeta zenbat "maitasun" fereka dena eurentzat gordeta (bis) lehenago edo berandu baina etorriko zaie buelta! Herriak duen maitasun dena herriarena da eta!! (bis)

argazkiak eskuetan, oihuka aritu ziren. Eskaria hagitz garbia zen: epaituen exekuzioa!

Epaiketa ilegala, lurralde kolonialean, atxilotuen eskubideak babestu gabe, zanpatuak, froga nabarmenik gabe eta zigor ikaragarriekin, hori da Marokok eskaintzen duena: 8 biziarteko kartzela-zigorak, 30, 25 eta 20 urteko kondenak (4, 7 eta 3 = 14). Nazioarteko komunitatearen isiltasunean? Ez, inolaz ere ez! Erreferenduma sahararren esku bidea da.

Ez dugu terrorismoaren aitzakia onartuko!

Ezkurrako  
udalari  
erantzunaIdoia VILLANUEVA RGUEZ.  
Ezkurrako herritarra

Lehenik eta behin, lotsagabe batzuk zaretela esan nahi dizuet. Zergatik?

• Etxera bidalitako paperetan, gure proposamena gure izen abizen eta NAN zenbakia-

rekin bidaltzeko eskatuzue eta zuek zer? Dena ezkutuka? Eskolako proiektua herritarren baimenik gabe bisatu zenuten, herritarrek ezer jakin gabe!

• Zuek udaletxeko bazkideak zarete, ez herriko jabeak. Zuen beharra, lana, herriaren bozeramaile izatea da. Zuek ezin duzue herria inposatu! Zuen esanak ez ditu herriak bete behar, alderantziz baizik. Eskolako edifizioa ez da udalarena, herriarena da. Eta nork bozkatu du pisuak egiteko? Herrian pisu beharra dago? Ez dago beste ezerren faltarik? Nik uste etxe horretan beste mila gauza egin daitezkeela, esaterako:

- Solairu batean sozietate bat, herrian ostatu bat bakarrik dugu.

- Beste solairu batean, ludoteka bat umeentzat (Zubietako herriak lehengo eskolan hori egin zuen). Zeren ez ahaztu, hori lehen eskola zen; umeen lekua eta zergatik ez egin berarentzat txoko bat non bertan ema umeak egon gaitzkeen puzzleak egiten, kartetan jolasten

eta beste hainbat aktibitate egiten, kanpoan giro txarra dagoenean; gure etxe barruan egon beharrean edo frontoian hotzez.

Eta horrela seguruko beste zenbait herritarrek beste hainbat proposamen edukiko dituztela. Jarri proposamen guztiak mahaiaren eta herriak bozkatu dezala!

Beste puntu bat ere aipatu nahi nuke. Eskutitan esan duzue orain herriak ez duela dirurik teiltatua konpontzeko eta 10.440 euro pisuak egiteko proiektuan gastatzeko bazegoen? Goiko kaleko bideak zabaltzeko 90.000 euro baino gehiago gastatzeko bazegoen? Orain esango duzue bide hori subentzioekin konpondu zela, ba beraz saiatu beste herriek egiten duten moduan eta lortu subentzioa teiltatua konpontzeko!

Espero dut gure iritziek zerbaitetarako balio izatea eta behingoz gauzak denon artean eta denoi jakinarazita egitea eta ez gordeka. Honek Ezkurra beharrean Marbella baitirudi!



# EZKONTZA GEHIGARRIA

LOREAK

## Andregaiaren lore-sortak 2013ko joerak

Ezkontza egunean loreak garrantzitsuak dira, ez erramurako bakarrik, eliza eta jatetxea apaintzeko ere. Profesionalen arabera, hauek dira 2013ko ezkontzetan gehien ikusiko diren erramuak:

**VINTAGE UKITUA DUTEN ERRAMU KLASIKOAK:** Erramu hauek klasikoak izan arren, modan daude. Hala ere, erramu modernoak oraindik indarrean jarraitzen dute, handiak eta ikusgarriak. Andregai ausartentzat aproposak. Sasoiko loreek mugatuko dute nolakoa izanen den erramua.

**ERRAMU BARROKOAK:** Sorta barrokoak ere ikusiko dira oraindik, lore aromatikoekin eginak: peoniak, arrosak, jazminak... Eta osagarri bezala lazoak, kristalak, perlak... Koloreak nahasiko dira, gama berekoak nahiz kontrasteak eginez. Garrantzitsua da lore frexkuak izatea.



**SASOIKO LOREEKIN EGINDAKOAK:**

Negurako bulboak, arrosak eta orkidearen bat; udaberri eta udarako arrosak, peoniak eta jazminak. Bero askorik ez badu egiten hortensiak eta anemonak.

Eta bitxiak gustukoak badituzu eta originala izan nahi baduzu, *bouquet joya* delakoarekin probatu.



**2013KO EZKONTZARAKO ESKAINTZA BERRIA**

Andregaien erramuetan espezialistak  
Elizen dekorazioa • Ezkontza oparietan aukera zabala  
Arrak • Serpenti kanoiak • Ilerako apaingarriak • Ligak

NARBARTE | T.948 59 22 00

**ESTHER**

**TELEFLORA**

**Azalea**  
Altzate 32 BERA 948 631 121

Andregaiendako lore-sortak  
Eliza edo epaitegiko apaingarriak  
Kotxeko loreak

**LORTU PUNTUAK  
ZURE EZKONTZA  
EGUNAREKIN**

**ttipi-ttapa**

ETXERA BIDALTZEA nahi baduzu  
deitu telefono honetara:  
948 63 54 58 - www.ttipi.net



**DONEZTEBEN**  
**AINHOA ILEAPAINDEGIA**

**ILEAK BEHAR DUEN GUZTIA**

- Mota guztietako koloreak
- Ile-mozketak
- Orrazkerak
- Tratamenduak
- Estensioak

Asteartetik lanunbatera  
Egurdietan irekia  
Ordua hartzeko deitu:  
**948 451 841**

AINHOAren ESKUETAN JARRI!  
ANIMATU ETA PROBATU!



**MAKILLAJE ZERBITZUA**  
Plazaburu, 9 behea Elizondo  
T 948 580 390  
www.idoiaoteiza.com

**idoia oteiza**  
LEZAKA

**ruth**  
ILEAPAINDEGIA



Laser  
Solarium  
Makillajea  
Amoniako gabeko  
tinteak  
Produktu ekologiko  
profesionalak  
Londreseko azken  
modako ile mozketak  
eta orrazkerak

948 637 436 | LESAKA

## ILEA - TRATAMENTUA

# Ezkontza eguna baino 2 hilabete lehenago prestatzen hastea komeni da


### ILE MOTZA, LUZEA, BILDUA EDO LOTU GABEA

Ezkontza noiz den, egunez edo gauzez, garrantzitsua da orrazkera aukeratzeko. Egunez baldin bada, orrazkera naturalak hobe ematen dute; lore batzuekin edo buruko xume batekin ere egin daitezke. Ezkontza gauzez baldin bada, kasu horretan orrazkera formalagoa aholkatzen da, eleganteago izaten baita. Onena, ileapaindegian proba bat baino gehiago egitea da, gehien gustatzen zaigun orrazkera aukeratzeko. Horrela, ezkontza egunean ez dugu dudarik izanen. Orohar, ile-orrazkerak lau estilotan klasifikatzen ahal dira: ile motza, luze eta lotu gabea, bildua eta erdi-bildua.



### ILE MOTZA

Ezkontza egunean ederrena izateko, ez da beharrezkoa ile luzea edukitzea. Ile motza dutenentzat ere milaka aukera daude. Orrazkera mota batzuek gainera, aurpegi argalagoa egiten digute. Bestalde, beti dago aukera ile-luzapenak erabiltzeko. Kasu horretan, gure ilearen kolorearekin hobekien egokitzen dena zein den ikusi behar da, eta luzapenaren luzera ere gure aukerakoa da.



### ORRAZKERA BILDUA, AURPEGI BOROBILENTZAT APROPOSA

Aurpegi borobila eta sudur txikia izanez gero, ilea bilduta eramatea izaten da egokiena. Gainera, ile orrazkera hau ongi gelditzen da maukak dituzten edo lepo altua duten soinekoekin.



### ERDI BILDUA


Sorbaldak biluzik uzten dituen soinekoa erabiliz gero, orrazkera hau aproposa da. Ilea erdi-bildua eramateko modurik ohikoena, ile gehiena aske eramatea eta alboetako ileak biltzea da. Bestalde, joeran jarri da azkenaldian ilea *ilekorda* batekin biltzea; orrazkera informalagoa da hau.

## Gonbidatuentzako arropa

Ezkontza goizean izanez gero, ez dago beste aukerarik: soineko motzarekin joan behar da. Arratsaldean edo ilunabarrean bada, luzez ere joan zaitezke.

Gonbidatuaren jantzia aukeratzeko orduan ezkontzako estiloa kontuan hartu behar da. Tokiaren arabera eta gorpuztaren arabera aukeratu soinekoa.

Denboraldi honetan distirak, flekoak eta kolore hitsak, leunak eramanen dira. Arrosa kolorea nabarmenduko da eta beltzak ere garrantzia hartuko du parpaila eta harribitxikiekin konbinatuta.



## JANTZIAK

# Janzkera tradizionala



Gero eta bikote gehiagok erabakitzen dute estetika tradizionalarekin apaintzea euren ezkontza, eta horretarako bilatzen duten arropa ere berezia izaten da. Euskal tradizioa duen arropen birada bat emateko joera gero eta gehiago ari da zabaltzen. Holakoetan, ezkongaiantzako ez ezik, ezkongaien ondokoentzat eta gonbidatuentzako jantzi tradizionalen aukera zabala eta osatua dago gaur egun, estilo zeremoniatsuetarako ezin egokiagoak diren jantziekin hornitua.

## JANTZIAK

# Kolore biziko kontrasteak



Andregaiari baino arreta gutiago ematen bazaio ere, senargaia egun horretako protagonista da eta beraiei ere gustatzen zaie azken joerak ezagutzea. Itxurosoak eta estilo handikoak diren txake eta esmokinak, jaketa-trajeak... Kolorei dagokionez, beltza da gehien erabiltzen dena baina denboraldi honetan distiratsuagoak izanen dira. Diseinatzaile batzuk kolorearen alde egiten dute apostu eta traje klasikoei bertze ukitu bat ematen diote. Berrikuntza gisa, estilo kolonialekoak agertu dira eta senargai ausartei gustatu zaie. Kolore biziko txaleko alaiak eramanen dira jantziaren seriotasunarekin kontrastea egiteko.

**Martzutzak**

ZURE OSPAKIZUNETARAKO  
BEHAR DUZUN GUZTIA

- ♥ Sainekoak
- ♥ Poltsak
- ♥ Bisuteria
- ♥ Ilerako apaingarriak

Bidasoa, 12 • BERA • 948 631 425

**TEXARTU**

**JANZKERA TRADIZIONALA**

Josteko eta brodatzeko gure tailerra daukagu  
Aurrekontua konprosorik gabe

San Frantzisko 8 eta 10 • Alde Zaharra • IRUÑA  
T. 948 22 64 95 • www.texartu.com

**M&M**  
MERCHE MODA NOVIOS

Giovani Valdi  
Sandro Sellini  
Caramelo gala

Serapio Mugika, 11  
20302 IRUN  
943 612 626

[www.capelettimercheirun.com](http://www.capelettimercheirun.com)

f

**Zalain**  
JATETXEA RESTAURANTE

Ospakizun berezietarako jantokia  
Menua eta karta  
Sasoian sasoiko platerak

Ezkontzetarako  
leku paregabekoa

Zalain auzoa z/g  
31780 Bera  
T. 948 631 106  
W. www.zalain.com

JATETXEA

## Aperitifa originalak ezkontza egunerako



Ezkontza egunean gonbidatuak harritu nahi badituzu, hemen duzu koktelerako proposamen desberdin eta goxoa: verrine-ak.

Verrineak kristalezko ontzi txikiak dira eta horietan janari eta edariak zerbitzatzen dira. Txupitoak edateko basoen antzekoak dira. Aperitibo honek Frantzia du jatorria eta 'poto' erran nahi du. Hauetan janaria kapaka zerbitzatzen da eta horrela zapore eta testura desberdinak nahasten dira.



Aukera zabala eskaintzen dute eta gazi eta gozotarako erabiltzen ahal dira. Arruntak edo izugarri elaboratuak izan daitezke.

Zure gonbidatuak harrituko dituzu, bai daukaten aurkezpen politengatik zein zapore gozoengatik.

**ETXALAR**  
HOTEL-VENTA

- 275 lagunentzako jantokia
- Ezkontzetako menu aldagarria
- Xoko politak bai kanpoan baita barruan ere
- Eguraldi onarekin musika terrazan
- Ongi etorri koktela - Lunch afariak
- 21:30ak arte musika
- Gaua hoteleran pasatzeko prezio bereziak Taldentzako \*\*\*
- Suita oparitzen dugu ezkontza gauan
- Arrosak eta inprenta hotelaren kontura

**AUTOBUS ZERBITZUA  
PREZIO ONEAN**

Iruflea - Irun errep. 60km | ETXALAR  
T. 948 635 000 | F. 948 635 263  
info@etxalar.com | www.etxalar.com

## Postrerako mahaiak

Postrerako mahaiak ere beraien joera propioak dituzte. Pastel deigarriak nagusituko dira baina baita ukitu berezia duten etxeko postre arruntak ere. Portzio indibidualetan jarriko dira. Gozoen eta postreen mahaiak ukitu desberdina emanen diote zure ezkontzari. Horietan goxokiak, *cupcake*-ak, *makaronak* (almendra eta azukrearekin egingakoak) ... zerbitzatzen dira.



**ARMUA JATETXEA**

Esakatu zure ezkontzarako menua  
Haurrentzako jolas parkea

OSPATU EZAZU GUREN  
ZURE EZKONTZA EGUNA

URDAZUBI  
Alkand. auzoa, Km. 3  
Telefonoa: 948599131  
Fax: 948599131

TTIPI-TTAPA  
ALDIZKARIA  
SARE SOZIALEAN

**facebook**

www.facebook.com/tpi.ttapa

EGIN ZAITEZ GURE LAGUN

MUSIKA

# Aukeratu duzu ezkontza eguneko musika?



Hona hemen gomendio batzuk:

Musikak garrantzi handia du ezkontza egunean. Gogo-aldar-tean eragin handia dauka, emozioak azalarazten ditu. Pieza ego-kiak aukeratuz gero, ezkongai eta gonbidatuen emozio eta sentsazioak sakonagoak izanen dira.

Musika momentu bakoitzari egokitzea garrantzitsua da. Adibidez, banketearen arratsa izan behar luke, gonbidatuak ez molestatzeko.

Abestirik garrantzitsuenak ezkontza-martxa, ezkonberriak jatetxera iristen diren momentukoa, tarta mozten dutenekoa eta balsa izaten dira. Ezkontza informala bada, askatasun handiagoa dago musika aukeratzeko orduan. Hala ere, saiatu musika ezkongai eta gonbidatuen gustukoa izan dadin, eta banketearen ondoko dantzaldian denetarik jartzea aholkatzen da; musika mugitua, dantzagarria eta alaia. Jendeari dantzarako irrika sortzea lortu behar da.

**ZURE MUSIKA**  
Ezkontzak • Ekitaldiak • Beldak • Aurreko ezkontza bereak

**endara edj's**

Informazio gehiago: 605 762 800  
www.endaradeejays.com

**BEOLA**  
Zure ezkontza egunean, etordiarik bereziena

Nagusia, 1 | ALMANDOZ | T. 948 585 002 | www.beola.com



## HOTEL BAZTAN

Iruñea-Frantzia errep. 52km • 31700 Elizondo  
T. 948 580 050 • F. 948 452 323  
www.hotelbaztan.com • info@hotelbaztan.com

- Gonbidatuei ongi-etorria emanen dien **aperitiboa** gure lorategietan eginen da, naturaren erdian, bailara inguratzen duten mendiak parean direla.
- Aurrez erabakitako **menua proposamen zerrenda luze** batetik aukeraturakoa izanen da, sukaldaritza tradizionalaren eta plater berritzaileen arteko bategitza
- **250 laguntzako tokia** duen gure saloi handian eginen da edo nahiago izanez gero, lorategian karpa bat jartzen ahal izanen da.
- Ondorengo dibertsioa eta dantzakia ere seguruak izanen dira gure musika-zerbitzuei eta ostatuari esker.
- Bukatzeko zer hoberik **afaritxo** baino, indarrak berreskuratu eta dibertsioarekin segitzeko.
- Gonbidatuentzako **aparkaleku estali handi** bat ere badugu, eta gure logeletan gonbidatu eta senitartekoentzako prezio bereziak ere eginen dira.



# photolekun

Ricardo Bosch - Argazkilaria



Herriko Plaza 4 , Bajo  
 31870 LEKUNBERRI  
 Tfnoa.: 948504370 - 658737731



## ARGAZKIAK

# Ezkontzetako argazkietan bi joera nagusi daude



Azken urteotan ikusi denez, posado tradizionalek indarra galdu dute estilo naturalagoen mesedetan, eta fotokazetaritza estiloak haren lekua hartu du. Azken berrikuntza, dantzaldirako *photocall*-a kontratatzea da eta, horrela, dantzaldirako argazki dibertigarriak lortzen dira. Bestalde, gero eta gehiago ezkongaiak *First look* edo *e-session* deituriko saioekin ausartzen dira: ezkontzako jantziarekin, beraiek bakarrik, ezkontza baino lehen ateratzen dituzten argazkiak. Eta azken joera bezala, *trash the dress* izeneko sesioa egin daiteke. Hau ezkontza ondotik egiten da eta soinekoa hondatzeko beldurrik gabe argazki bereziak egiten dira: hondartzako uretan sartuta...

*Boudoir* argazkiak ere egiten ahal dira. Gure inguruan egiteko ohiturarik ez badago ere, aukera hor dago. Ezkontza egunean andregaiak gizonari opari egiten dio. Argazki sentsualak dira, lentzeari ateratzen dira argazkiak baina izugarri zainduak. Logelan, jantzigelan... ateratzen dira argazkiak, leku intimo batean.

**UDABERRI-UDAKO MODA**  
**hurrengo alean**  
 Irogarkia jarri nahi baduzu  
 deitu martxoaren 12a  
 baino lehen  

 ttipi-ttapa T. 948 635 458



E  
z  
k  
o  
n  
t  
z  
a  
k



**Zaldúa** argazkilaria  
 Elizondo - Donostia  
 WWW.zaldua.com



  
**Erreportajeak bereizmen handian (HD)**  
 • Talde profesional batek egina  
 • Merkatuko preziorik onenak  
 T. 948 599 055 M. 609 488 612  
 Gure egoitza • DANTXARINEA  
 Mendinueta, 7 2.Ek ELIZONDO

**EZKONTZETAN ESPERIENTZIA HANDIA DUGU**

EZTEI-BIDAIA

# Ezkon-bidaia perfektua: ahaztezina eta lasaia



Urduritasuna eta estresa pilotzen dira ezkontza prestatzerakoan.

Horregatik, ezkonberriek lasaitasuna bilatzen dute ezkonbidaian. Baina era berean, bidaia ahaztezina izatea nahi izaten dute; bizitzan behin bisitatzen diren leku horietako batera joaten dira, normalean.

Aurrekontuak edota momentuko eskaintzek baldintza dezakete ezkonbidaia, baina bidai agentziek nahi dena egiteko milaka aukera eskaintzen dituzte, eta arrazoizko prezioetan. Bidaia 'ahaztezin' bat egitea izaten da asmoa, leku berezi batera joanda. Era berean, lasaitasuna nahi izaten dute ezkonberri gehienek. Bestela, bi alderdiak betetzen dituen bidaia egiten dute: egun batzuetan zerbait bisitatu, eta hurrengoetan, deskantsatu.

## IRLA ETA HONDARTZA EXOTIKOAK

Eguraldi ona eta deskantsatzeko leku polita bilatzen dituzte bikote gehienek. Era berean, gehienek zerbait ikusi eta bisitatzeko aprobetxatzen dute, baina normalean, hondartza batean bukatzen dute ezkonbidaia. Modako aukeren artean daude, konparaziora, greziar irletara edo Karibera kruzeroak. New Yorkera joatea ere bikote askok aukeratzen dute. Honek gainera, hainbat konbinazio egiteko aukera ematen du. Batzuek New Yorken pasatzen dituzte lehenengo egunak, eta ondotik, Mexikora joaten dira, Riviera Mayako hondartzetara. Edo bestela, Miami, Florida, Costa Rica edo Habanako hondartzetara.

Mendebaldeko kosta ere erakargarria da askorentzat: San Francisco, Las Vegas, Los Angeles, edo Coloradoko *Grand Canyon*-a bisitatzen dituzte lehenengo, eta Polynesiako irletan deskantsatzen dute gero.

Beste bikote batzuk beren zaletasunen arabara antolatzen dute bidaia. Adibidez, surf egitera joaten dira Kaliforniara, edo eskiatzera, Kanadara, eta ondotik Polynesiara.

Normalean, 15 edo 20 eguneko bidaiak egiten dituzte bikote gehienek.



Carlos III Etorb. 13-15 • IRUÑEA • 948 206 246 • carlos3@marfilviajes.com  
 Paulino Caballero, 40 • IRUÑEA • 948 290 350 • pcaballero@marfilviajes.com  
 Forasen Plaza, 13 • BARAÑAIN • 948 285 268 • baranain@marfilviajes.com  
 Gardachales kalea, 3 • TUTERA • 948 848 416 • tudela@marfilviajes.com



**UDABERRI-UDAKO MODA**  
hurrengo alean

Iragarkia jarri nahi baduzu:  
deitu opirilak 5a  
baino lehen

T. 948 635 458 



**artlepo**  
web orrialak  
liburu grafikoa

Zaraginutze, 31  
Donerribe  
948 450 478  
artlepo@artlepo.com  
www.artlepo.com

Gonbidapen  
personalizatuak  
zuek nahi duzen  
diseinuarekin

Gonbidatuentzako  
opari berexiak

web orrialak rudi korporatiboak kartelak katalogoak  
egutegiak diplomoak logotipoak txartelak orrialak



Zure ezkontza  
gonbidapena  
personalizatu.

**GONBIDAPENAK**

gma@maipostabuzoneos.com

**Mailposta Buzoneos**  
Tel. 686 747 713  
Alzgorria • Nafarroa




Zuk ere egia dezakezu...

...baina zerbaiz gehiago nahi badazu...

**bortzirudi**  
Zurea eta pertsonalitate zurea • Zurea eta pertsonalitate zurea

Andor eta forano

Hukerak,  
eholkuak  
eta  
prezio ezko hobeak  
eskeintzen dizkizugu!

**948 635 458**



GONBIDAPENAK

# Eskuz egindakoak nabarmenduko dira

Ezkontza-gonbidapenak dira gonbidatuak ospakizunera etor daitezen erabili ohi den komunikazio ofiziala. Lagun eta senideak jakinaren gainean egonen badira ere, gonbidapenarekin ospakizunaren lekua, data eta ordua zehazten dira, baita ondoko otorduarena ere.



**HANDMADE ESTILOKO** papertegia aunitz egiten ari da. Oso landuak izan arren, etxean eskuz egin direla eman behar du.



**ESTILO RUSTIKOAK:** Kraft papera eta zaku antzeko oihala erabil daitezke hauek egiteko.



Berrikuntza gisara, **AKUARELA** edo gouache motakoak ere izan daitezke, akuarelak baino akabatu pastosoagoa dutenak.



**GRABATUAK** gero eta gehiago sartzen ari dira papergintza mota honetan. Baina garestia denez, gonbidatu gutxiko ezkontzatan erabiltzen dira gehienetan.

**LASERRAREKIN** moztutako gonbidapenak: sormena, originaltasuna eta 3D efektu izugarria dute. Hauek ere garestiak izan ohi dira konplexuak izanagatik.

**TIPOGRAFIKAK** edo letra motak garrantzi handia hartuko du aurtengoan.

## Ezkontza&Gonbidapenak

Atseginez gonbidatzen zaituztegu, nahi duzuenen aurrekontua eskatzera.

Ondotik, gonbidapenak zuen gustura egitea da gure helburua.

Lana bukatutakoan gonbidapenak hartu eta banatzea lan erreka izanen da.

Zuen dela espero dugu  
Ezkontza&Gonbidapenak Tel 948 63 54 58

100 gonbidapen  
+100 sobre  
150€ bezala

Zuk nahi dituzun bezala  
**PERSONALIZATUAK**

egun berey! batek  
gonbidapen berey!ak  
behar dituelako...

Ezkontza&Gonbidapenak



Konkordale bidea, 7 - 1 | 31170 LESAMA  
948 635 458 | www.ttipi.net | info@ttipi.net



AL IANTZAK

-%10



**Kalash**

JOYEROS

Ctra. Mercado, 7  
DONEZTEBE  
Tel. 948 451 519

SENARGAIENTZAKO TRAJEAK  
(neurria egiteko aukera)

-%10

CONFECCIONES  
SASTRERIA

**JUAN J.  
PICABEA**

c/ Ameztia, 5 - bajo  
DONEZTEBE  
Tel. 948 451 670



GONBIDAPENAK  
DETAILEAK

-%10



COSAS DE CASA

c/ Inzakardi, 9  
DONEZTEBE  
Tel. 948 450 409

www.cosasdecasazaldueban.com

ERREPORTAIA  
ARGAZKI  
HAUNDITZEA  
(60x40)

-%10

**Zaldúa**  
fotografos

c/ Inzakardi s/n  
DONEZTEBE  
Tel. 948 450 364  
www.fotazaldua.com

AURREZTU  
-%60  
DONEZTEBEAN

LORE  
APAINDURAK  
ANDREGAIAREN  
LORE-SORTA

-%10



c/ Inzakardi, 8  
DONEZTEBE  
Tel. 948 451 758

TRATAMENDUAK  
MAKILLAJEA

-%10

ARRATE E/TETIKA ZENTROK

Eliza karrika, 18  
DONEZTEBE  
Tel. 948 450 286  
www.arateestetica.com

**ZUEN EZKONTZA GURETZAT  
ERE GARRANTZITSUA DA**

**%10 EKO DESKONTUA EGINEK DIZUEGU DENDA BAKOITZEAN**

## GIZARTEA

GIZARTEA → OTSAILAREN 22AN EMANDAKO PRENTSAURREAN

# Mahai inguruko kantuak II diskatik 2.000 euro bideratu dituzte gizarte zerbitzuetara

Disko bakoitzaren salmentarekin euro bateko dohaintza egingen dute

## TTIPI-TTAPA

2008an kaleratutako lehenengo diskak izan zuen harrera ona ikusita, bigarren diska bat sortu dute. Lan berrian, hamabi kantu biltzen dira. Antzinako bederatzikanta eta berriagoak di-

ren beste hiru interpretatzen dituzte Baztan, Bortziriak eta Malerrekako 15 lagunek. Diskaren salmentatik lortutako diruarekin ekimen solidario bat jarri dute abian. Disko bakoitzaren salmentarekin euro bateko dohaintza egingen baitiote Baztan, Bortziriak eta Malerrekako gizarte laguntza eskaintzen duten zerbitzuei.

Horrela, eskualdean bizi diren eta egoera ekonomiko larrian dauden familiei laguntzeko

asmoa dute. Dagoeneko 2.000 euro bilduak dituzte. Kopuru hori eman diete otsailaren 22an egindako prentsaurrekoan Angel Mariezkurrena, Luis Mari Retegi, Aitor Ibarra taldekideek eskualdeko laguntza sozialetako ordezkari. Zehazki Migel Mari Irigoien, Bortziriako Gizarte zerbitzuen mankomunitateko presidenteari eta Jon Elizetxe, Baztango zinegotziari. Kantarien borondatea eskertu zuten hauek.



UTZITAKO ARGAZKIA

Otsailaren 22an Iruñean eman zuten prentsaurrea.

# BERRIKI IREKIA!

GASOLINDEGIA | DENDA  
OGIA | PRENTSA

bp



Zalain industrialdea | BERA | 948 630 249

**GIZARTEA** → MARTXOAREN 3AN OMENALDIA

# Espainiako Gerran fusilatutakoak eta desagertuak gogoan izan ditu herriak

Hilarria agertu zuten hilerrian eta ekitaldia herriko plazan

**TTIPI-TTAPA**

Udalak hainbat ekitaldi antolatu zituen martxo hasieran, Espainiako Gerran fusilatutakoak eta desagertutakoak gogora ekartzeko. Ekitaldi nagusia martxoaren 3an egin zen.

Goizean lore eskaintza egin zen hilerrian, eta bertako hobian paratu den harria agerian utzi zen. Hauxe irakur daiteke hilarrian: *Berako Udalak Espainiako gudan fusilatutakoak eta desagertuak gogoan; Gazte ziren, aske ziren, langile ziren eta harro zeuden, gizarte berri bat amesten zuten eta berdintasunean sinesten zuten.* Eguerdian, Beran fusilatu zituztenez gain, fusilatutako eta desagertutako beratarrek omentu zituen Udalak Herriko Etxeko plazan. Hamabi beratar identifikatu dituzte fusilatu eta desagertutakoen artean: Secundino Anadon Cambero, Francisco Arozamena Irazoki, Lucio Aldai Longarai, Ra-

mon Balza Loperena, Enrique Berasain Sorondo, Juan Etxenike Matxiarena, Gregorio Francisco Garbisu Endara, Ecequiel Gomez Rodrigo, Esteban Irazabal, Joxe Laraburu Maritxalar, Faustino Martinez Urteaga eta Cesareo Seminario Iraizoz. Musikari, bertsolari eta dantzarien saioen artean, adierazpen instituzionala irakurri zuten Marisol Taberna alkateak, Asteasu, Etxalar, Igantzi, Tolosa, Villabona, Zizurkil eta Berako udal ordezkariak inguruan zituela. «Sufri-mendua, krudelkeria, gerraren oinazea ahan-tzi gabe, berriro ere gerta ez dadin, adiskide-tzearen aldeko mezua zabaldu nahi dugu gaur, hemen. Gorrotorik gabeko gizartea eraikitze-ko konpromisoa hartzen dugu, askatasunean, justizian eta aukera berdintasunean oinarritua egonen dena. Ez Euskal Herrian, ez munduko bertze inongo lurraldetan horrelakorik berri- ere gerta ez dadin, gure ahotsa goratzen segituko dugu, herrien eta pertsonen askatasunen alde», zioen idatziaren bukaerak.



ARGAZKIAK: AITOR AROTZENA

Une hunkigarriak bizitu ziren martxoaren 3ko omenaldi ekitaldian.

**ELKARTEAK**

1.467 bazkide, 215 dantzari, 155 futbolari eta 30 pilotari ditu Gure Txokoak

**TTIPI-TTAPA**

1.467 bazkide ditu Gure Txokoak eta 215 dantzari, 30 pilotari eta 155 futbolari ari dira Berako elkarte nagusiaren izenean, martxoaren 2ko urteko batzar orokorrean emandako datuen arabera.

Txirringularitzan, aipagarria da aurtun jubenilen laisterketa Euskal Herriko torneoaren barnean sartuko denez, 100-160 txirringularien partaidetza ziurtatua dagoela. Beti Gazte, Biltoki eta Gure Txokoa elkarten artean martxan jarri nahi den txirringularitza eskola ere aipatu zuen.

Dantzetan, urtean antolatutako ekitaldiak aipatu zituen Jon De la Cruzek eta San Migel zubiko batailaren 200. urteurrena dela eta eginen dituzten ekitaldiak aipatu zituen.

Pilota eskolan, 25 urtez irakasle

izan den Luis Mari Retegik erreleboa eman die Mitxelena, Eltzaurdia eta Lazkanotegiri.

Futbola eta areto-futbola hagitz defizitarioak direla ere aipatu zen. Halere, heldu den denboraldian berri- ere jubenilen taldea ateratzea da helburua. Futbol zelaian belar artifiziala paratzeko urtean zehar izandako bilerak aipatu ziren eta 2013an Nafarroko Gobernutik dirua ez zegoela erran zen. 2014an dirulaguntza hori lortzea izanen da helburua.

Azkenik, bodegeroek ostatuko berri eman zuten, bertan egindako obraren berri, baita ostatuko faltan berri ere. Ostatuko faltak aunitz gutti- tu diren arren oraindik hobetu dai- teke, kontuak arretaz eginez eta ma- haiak, garbiketa, deskortxeak... or- daindu behar direla gogoratu.

# LESAKA

UDALA → BILDUREN ALDEKO BOTUEKIN

## 2.492.108 euroko aurrekontua izanen du aurten Herriko Etxeak

PNVk ez zuen bozketan parte hartu beraiek landutako zirriborroak «ez duelako zerikurisik dokumentu ofizialarekin»

### Aitor AROTZENA

2.492.108 euroko diru sarrera eta irteerak izanen ditu aurten udalak, Bilduren aldeko botuekin onartutako aurrekontuaren arabera. Andra Mari Zahar Etxearen aurrekontua, berriz, 694.000 eurokoa izanen da. Bietan ere, aurrekontu ttikixeagoa dute. Azkeneko urteetan bezala, udalaren zorra kontuan hartuz, guttieneko aurrekontu bat izanen da, eta inbertsio gutti egingen da. Amortizazio eta interesetan bakarrik aurrekontuaren % 14 joan da, 360.000 euro eta krediturik eskatzeko aukerarik ez du Herriko Etxeak, udalaren zorpetze maila %200 ingurukoa baita eta kredituak eskatu ahal izateko muga

%75ean dago. Halere, gastu soziala eta zerbitzuak mantendu nahi izan ditu Bilduko udal taldeak.

PNVk ez zuen bozketan parte hartu. Beraien aztertzeko eskuratu zuten oinarriko aurrekontu-zirriborroak eta dokumentu ofizialak zerikusirik ez dutela salatu zuten. Gainera, hainbat atal murrizten direnean, udalak Euskara Mankomunitateari ematen dion diru kopurua bi urtetan bikoiztu izana ez zuen ulertzen PNVk, eta ez zuen beharrezkoa ikusten Lesaka UEMAn eta Udalbiltzan egotea. Aurrekontuko bertze puntu batzuekin ere ez zegoen konforme PNVko udal taldea.

### Korrika berezia

Martxoaren 17an ailegatuko da Korrika herriera, baina bezperan, Korrika giroa nagusituko da herrian. Bortzirietako euskara ikasleak omentuko dituzte martxoaren 16an. Ekimen honekin, gure hizkuntza xaharra ikaste-ko egiten duten ahalegina eskertu nahi zaie. Arratsaldeko 06:00etan plazaatik abiatuta, Bor-



ARGAZKIA: TANTIRUMAIRU IKASTOLA

### Tantirumairu ikastola Zestoako Ekainberri bisitan

Tantirumairu ikastolako Lehen Hezkuntzako ikasleek Zestoako Ekainberria (Ekaingo lezearen erreplika) joan ziren martxoaren 5ean. Kobazuloan bisita gidatua egin zuten denek, linterna eta guzi. Baina horretaz gain, mailaren arabera tailer ezberdinak ere egin zituzten. Honela, lehen eta bigarren mailakoek *Animaliek jarraika* tailerra egin zuten, lehen gizakien erara animaliak marraztu eta margotu zituzten ikatza eta buztina erabiliz; hirugarren eta laugarren mailakoak *Suaren bila* ibili ziren eta makilak, lastoa eta sokak erabiliz sua egitea lortu zuten. Bosgarren eta seigarren mailakoek, argazkian ageri den bezala, *Ehiza egun bat* izan zuten, Ekaingo *bizilagunek* erabiltzen zituzten tresnekin.

tzirietako Korrika, Korrika sinbolikoa izanen da. Bortz lekuko aldaketa egingen dituzte, Bortzirietako ikasleek, herri bakoitzeko lekuko aldaketa bat. 18:30ean berriz, ekitaldia nagusia hasiko da. Hasteko, Tantirumairu euskal folklore taldekoek aurrekua dantzatuko diete euskara ikasleei eta Trikipand taldekoek osatuko dute arratseko musika pieza. Horretaz gain, euskaltegiko ikasle eta irakasleek zerbait irakurri eta abestuko dute eta Maddalen Lopez eta loar Taintak bertsoak kantatuko dituzte. Arratsalde osoan zehar, Labiaga ikastolako talogileek taloak prestatuko dituzte.

### Ba al zenekien...

Espainiako Kalitate Turistikorako Institutuak (IC-TE) banatzen duen kalitate turistikoaren Q ziurtagiria lortu duela Atxaspi hotelak, landa ostalduen atalean

### ZERBITZUEN ELKARTEA

Udaberriko Feria antolatu dute martxoaren 24rako

### TTIPI-TTAPA

Lesakako Zerbitzuen Elkarteak Udaberriko Feria antolatu du martxoaren 24rako eta 13 zerbitzuen eskaintza bereziak eta denboraldiko nobedadeak eskainiko dira pilotalekuan 10:00etatik 19:00etara. Zehazki, Bixkiak kirolak, Urdi, Intzuri Optika, Oreka Dietetika, Ortzadar, Osiña, Barcelo bidaiak, Telletxea argazkiak, Txinelka zapata denda, Kattagorria, Esther atea eta Otxoteko pintura eta elektrizitatea izanen dira parte hartuko dutenak. Sarrera doan izanen da.

**XATURETXEA**  
JATETXEA  
T. 948 637 260 - LESAKA

**IRU BIDE**  
Turismo - Auzoak  
T. 948 637 127

**kulki**  
umeentzako kultur kirolak  
Tel. 948 552 171  
www.kulki.org

**PPSOE,**  
Euskal Telebista digitala  
Nafarroan orain!  
Barria erosi taldea

Lesako Bazarra  
Martxoaren 24rako  
Jentziak, kirolak, Puzen Maak  
**kattagorria**  
Behoko plaza 10 30770 Lesaka  
T. 948 427 514

GIZARTEA → HERRITARREN LAGUNTZAREKIN

## Organoa berritzeko behar zen dirua lortu da

Otsailaren 17an elizan egin zen batzarrean informazioa zabaldu zen

### Irune eta Itsaso

Organoa moldatzeko lana ia akabatua da. Gastua ordaintzeko behar zen dirua aski bildu da: eskean, zozketan, azokako salmentan, eta lehendik zena.

Dorreko teilatua eta teilatua handia, biak arunt gaizki daude. Baina ez da dirurik berritzeko. Hala ere, emaile bat izan daiteke, torreko gastua ordaintzeko prest dagoena. Hala gertatzen bada, aurten bertan moldatuko da.

Dorreko teilatua lehen zegoen forman paratuko da, duela 55 urte arte zegoen bezala. Orduan erlojua bazuen, baina kanpoko lau aldetako esferarik ez. Eta orain ere modu berean geldituko da. Erlojua izan, bai izanen da; er-

lojuko orduak orain bezala funtzionatuko du; orduen ezkilak adituko dira, baina ordua ikusi ez. Orain ordua ikusteko diren lau esferak ezin dira mantendu, torrearen forma aldatuko delako, eta aldatze hau eginen da itaizurarik ez izateko eta teilatua azpian aisago ibiltzeko. Dorreko bertze tokietan ezin dira paratu esfera horiek, Gobernuo *Bianako Printzea* erakundearen iduriz eta aginduz. Gainera, obra frankoz merkeago izanen da lehengo forma zaharra emanez.

Garai batean, Nafarroako elizaren izenean erregistroan sartuta zegoen Etxalarako tenplua edo eliza, titular honekin: El templo es "De la diócesis de Pamplona para la parroquia de Etxalar". Orain Etxalarako Parrokiaren izenean paratua dago, honela: El titular es la "Parroquia Santa Maria de Etxalar", Iruñeko Jabetza Erregistroan ikusten ahal dugunez.



ARGAZKIA: IRUNE ELIZAGOIEN

### Gazteak sagardotegian

Otsailaren 23an herriko 40 bat gazte Hernaniko Iparragirre sagardotegira joan ziren. Eguerdian herriaren sarreratik autobusean ateri eta goizeko 4etan egin zuten buelta Hernanitik. Giro ederrean pasa zuten eguna.



ARGAZKIA: MARI LUZ ARIZTEGI

### Txiste bazkaria

Otsailaren 16an txiste bazkaria egin zen Usategietako txabolan. 20 lagun pasatuxe bildu ziren bazkaltzera eta Azkoitiko Gillermo Segurola txiste kontalariarekin gozatzeko aukera izan zuten. Lesakako Madariaga eta Igoa akordeolariak bazkalondoa alaitu zuten.

### Korrika

Korrika martxoaren 16an pasako da Bortzirietatik. Altxata eta Udalak kilometro bana

erosi dute iada eta bertze kilometro bat erosteko dirua biltzen ari dira euskalzaleen elkar-tekoak. Azken kilome-

tro hau osatzeko lagundu nahi duenak euskara batzordekoekin harremanetan jarri behar du.

## MERKATU TTIKIA

OINETAKO ETA ARROPAN MERKATUA

MARTXOAREN 16an, LESAKAN

Goizeko 10:00-19:00 (eguerdian itxi gabe)

DENDAN BERTAN

Arretxea, 20

Plaza zaharra, 5

**txinelka**  
zapatadenda-zapateria

**oninart**  
jantzi denda

**5€**  
Neguko denboraldiko oinetako eta arropak

**15€**  
Neguko denboraldiko oinetako eta arropak

**10€**  
Neguko denboraldiko oinetako eta arropak

# ARANTZA

GIZARTEA → IKASTETXEAREN MENDEURRENA

## Eskolaren ehun urteak ekainean ospatzeko asmoa dago

Antolaketa lanak hasiak dira

**Nerea ALTZURI**

1913. urtea... huraxen eskola egin zen urtea. Aurten, mende bat betetzen du herri eskolak eta mendeurrenak hala merezi duelako, ekain aldera ospakizuna egiteko antolaketa lanak hasiak dira. Eskolak, udaleko kultur batzordearekin bilduta jorrratuko du gaia. Deialdi honetan, eskolako en, udaletxearen eta herritarren ideia eta ekarpenak batzeko asmoa dago ekainean egiten den ospakizuna den artean antolatzeko.

### Korrika ttikia

Datorren igandean, Korrika gure eskualdeko lurretan ibiliko da. Herritar aunitz ibiliko da laisterka euskararen alde. Lehentxeago, martxoaren 15ean, or-

tziral honetan, 16:00etan Korrika Ttikia egiten da. Eskolako ikasle, irakasle eta gurasok herrian barna korrika egiten dute euskararen alde. Kanta, koreografia eta petoak prestatzen ari dira eskolan.

### Berdintasunaren traterako programa

Martxoaren 8a abiapuntu hartuta, eskolan berdintasuna lantzeko programa jorrratzen ari dira. Irakasle guztiak inplikatur, eta ikasle guzietan zuzenduz, bakoitzak bere arlora eraman du gaia. Ikasturte osoan zehar programa garatuko dute.

Bertalde, Emakume langilearen nazioarteko eguna aintzat hartuz, joan den ortziralean, martxoak 8, elkarretaratzea plazan egiteko azen. Ondotik, berendofaria dastatu eta eta pelikula bat ikusteko asmoa zegoen.



ARGAZKIA: AITOR ELEXPURU

### Zuhaitz landaketa

Bertze urteetan bezala, aurten ere, eskolako lagunek zuhaitz landaketa egin zuten udalaren laguntzaz Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako ikasleek parte hartu zuten. Ehun bat bago landare landatu zituzten, Azkilarrea auzoan, Simoneko ardiaborda inguruan. Haur bakoitzak, bere izena jarria dio landatutako zuhaitzari. Gure basoen aldeko ekimen hau akautu ondoren, hamaitakoa egin, jolastu eta eskolara itzuli ziren goiz ederra aprobetxatuz

### KULTURA

## Gazteendako antzerki topagune izanen da Aterpe martxoaren 22tik 24ra

**TTIPI-TTAPA**

La Caixaren gizarte-ekintzak bultzatzen duen CaixaEscena gazteendako antzerki topaketetako saio bat Arantzako Aterpen izanen da martxoaren 22tik 24rako asteburuan. Estatu osoan (Madril, Murtzia, Zaragoza, Oviedo, Andaluzia eta Galizia) egiten ari diren topaketa haue- tan mila gazte baino gehiago ari dira parte hartzen, antzerkia bultzatu

eta ikasle eta irakasleen sormena eta talentua bultzatzeko. Euskal Herri osoan Arantzan bakarrik izanen da saioa eta bertan parte hartuko dute Tafallako La Tribu, Zintruenigoko La Paz, Iruñeko Salesianos, Tuterako Benjamín de Tudela, Bilboko Txurdinaga Behekoa eta Kantabriako Puente de San Migueleko Teatro 9 Valles antzerki taldeek, Egos Teatre konpainiaren aholkuekin.

**aterpe**  
albergua jantzeria eta...  
T. 948 634 179  
ARANTZA  
www.arantza.net

**ZUBIONDO**  
Jantzeria  
agardotegia jantzeria  
Alasta karrika  
TEL. 948 634 179  
BERA NAFARROA

**IMANOL ITURRIA**  
ZURGINA  
Enpresa eta partikular  
T. 661 577 137  
E-posta: imaiturria@hotmail.com  
Eskatu zurekontua konpromisorik gabe

**"TELLETXEA"**  
Lorazaintza  
- Lorategiak diseinatzea eta sortzea -  
- Mantentze lanak -  
- Ureztatze sistema automatikoak -  
- Kimaketak -  
John Telletxea Nekazaritzako Ingeniari Teknikoa  
LESAKA • T. 619 418 683 • johntelletxea@hotmail.com  
www.telletxealorzaintza.com

GIZARTEA → APirilAREN 27TIK MAIATZAREN 1ERA

## Udan igerilekuak kudeatzeko eskaintzak martxoaren 26a baino lehen aurkeztu behar dira

Ekainaren 15etik irailaren 15era irekiko dira aurten piszinak

**Joxean ORTEGA**

Piszinak kudeatzeko aurtengo deialdia zabaldu da. Urtero bezala Udalak diru bat eskaintzen du (aurten 1.500 euro) eta horren truke piszinetako tabernaren ardura ematen du. Aurtengo denboraldia Ekainaren 15etik irailaren 15a arte izanen da. Oi-

nariak Udaletxean daude, eta interesa duenak bertan irakurtzen ahal ditu. Eskaerak aurkezteko epea Martxoaren 26an bukatzen da.

### Herriko lehen mus txapelketa

Aurten, lehen aldiz, eta Udalako Kultur Batzordeak antolatuta, "Igantzi Herriko 1. Mus Txapelketa" jolastuko da. Sari ederrak izanen dira: 1.a 400 eurokoa Udalak emana, 2.a 200 eurokoa Bodegas Iñurrietak emana eta 3.a 100 eurokoa Igantziko



ARGAZKA: OSKAR TXOPERENA

Ekainaren 15etik irailaren 15era irekiko da aurten udal igerilekua.

Harrobiak emana. Partidak herriko ostatueta jolastuko dira, ortziraletan 19:30ean. Jokatzeko sistema berria izanen da, beraz, izena ematerakoan araudiaren ale bat partaideei banatuko zaie. Izena emateko epea martxoaren 15an ireki eta apirilaren 1ean itxiko da.

Edozeinek parte hartzen ahal du. Bikoteko 40 euro ordaindu behar dira. Lehen partidak apirilaren 5ean jokatuko dira.

### Erronkaren Eguna martxoaren 30ean

Kultur Batzordeak, Allinea eta Herriko Etxea ostatuak antolatuta Erronkaren Eguna ospatuko da martxoaren 30ean. Egitaraua hauxe litzateke: 17:00etan Trikipoteoa. 18:00etan herriar eta ostatuak arteko Erronka. 19:30ean Plater-poteoa (platera eta ardo basoa 3 euroan) frontoian trikiritxek giro-tuta. 22:00tan Baratzondo Elkartearen Mugalde-

koak Berako taldearen emanaldia (musika, poesia eta antzerkia).

### Kantu Zaharrak apirilaren 6an

Kultur Batzordeak antolatuta *Kantu Zaharrak* ekitaldia egingen da apirilaren 6an Baratzondon. Iaz lehen aldiz egingen eta aurten bide beretik joanen da. Izen emateko epea abudozabalduko da. Informazio gehiago aintzinerago emanen da.

**elika**  
Dietetika... elikadura

- Aholkularitza dietetiko nutrizionala pertsonalizatua
- Gorputz konposizioaren analisiak: ura, muskulua, gantza...
- Dietoterapia: hiperbentasia, hiperkolesterolemia, diabetesa, arazo digestiboak...
- Kolesterola eta glukosa azterketak

Iñaki Andueza Larra  
Itzea, 6 behea • BERA • T. 948 631 283 • elikabera@hotmail.com

**F. LANCHAS**

Akuntzadorea eta berriztatzailea  
Parket eta parket flotatzaila jaretzea  
Mota guztietako zolak

Tel: 948 630 735    M: 607 406 781

**JAKINKE - GOZTEGIA**

948 630 786  
Altzale. 19 • BERA

**BORTZIRI**  
UNSION ANAIAK  
Sukalderako altzariak

Berezu etxea • LESAKA  
Tel: 948 637 266 • 607 226 891 • Fax: 948 637 511

**APARAN, S.A.**  
BRIKOLAJA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mobleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mobleak eta osagarniak
- KIT mobleak, esku-erremintak, etab...

Tel: 948 456 080  
Fax: 948 450 334  
**DONEZTEBE**

# GAZTE OIHUA

GIZARTEA → GAZTE MUGIMENDUA

## Lanerako gogoz jaio da Ernai

Gazte antolakundearen izena, logoa eta aintzineraren begirako pausuak zehaztu zituzten Lizarran

### GAZTE OIHUA

Martxoaren 2an Ernai gazte antolakunde ezkeriar eta abertzalearen lehendabiziko kongresua ospatu zen Lizarrako Remontival pilotalekuan. Milatik go-

ra gaztek ongi etorria egin zioten gazte antolakunde berriari eta hemendik aintzineraren herri lanean hasterako gogoia erakutsi dute.

Eskualde honetan Zukgua prozesu eratzailan parte hartu duten gazteek ere izan zuten bertaratzeko aukera eta indarberriturik itzuli dira haien herrietara. Ekitaldia "izan ala ez izan" galderarekin hasi zen, ondotik prozesuan parte hartu zuten gazte batzuek beren esperientziak azaldu zituzten, kanta bat ere kantatu



UTZITAKO ARGAZKIA

Lizarrako pilotalekua gainezka ageri zen gazte kongresuan.

zuen bikote batek eta Sortu, LAB zein EPPK-k kide banak hitza hartu zuten gazteei atxikimendua adieraziz. Momentu zirraragarriena iritsi zen gero: batukadaren doinuak lagunduz, teloa erori eta ERNAI-ren izena zein lo-

goa agertu ziren eszenaren gibelaldean. Bukatzeko, heldu den urteetarako Ernairen borts bozeramaileak izanen direnak agertu ziren eta Maialen Etxeberriak antolakundearen helburuak eta erronkak gogora ekarri zituen: "anto-

luntzaz, independentzia, sozialismoa eta feminismoa". Kongresuaren ondotik, herri lanean hastera bertziker ez zaie gelditzen orain. Informazio gehiago [topatu.info](http://topatu.info) eta [ernaiantolakundea.org](http://ernaiantolakundea.org) webguneetan.



### MARTXOAREN 21EAN HITZALDIA EMANEN DU BARTZELONAKO IDAZLE ETA ARTISTAK

Pornoterrorismo liburua aurkeztuko du Diana J. Torresek Lesakan

#### GAZTE OIHUA

Feminismoa da Ernai antolakunde sortu berriaren oinarrietariko bat, eta honen adierazpide berritzaileenetarikoa bat lantzea proposatu dute Lesakako Ernaiko kideek: pornoterrorismoa. Diana J. Torres gaur jorratzen ibili izan da azken urteetan. Queer mugimendua,

transfeminismoa, prostituzioa eta postpornoaren inguruan egiten du borroka, eta horri lotutako performance zein poesiak egin izan ditu. "La muestra marrana" festibalaren sortzaileetarikoa ere bada, eta bertzeren artean eiakulazio feminino tailerrak ematen ditu. Sexualitatea, politika eta bertze

hainbat gairen inguruan eztabaidatzeko aukera izanen da martxoaren 21ean beraz, eta Lesakako Ernaiko kideek gazte zein helduak animatu nahi izan dituzte bertara hurbiltzera. Gaiaren inguruko informazio gehiago nahi izanez gero ikus <http://pornoterrorismo.com> webgunea.

**kattagorria**

ttipi bartela

**%10eko DESKONTUA**

bertzerian

**Gure Haragia**

**Nuestra Carne**

**ola**

**SAGARDOTEGIA**

Bertako sagarrarekin egindako sagardoa

- 250 lagun eserita
- Klimatizatua
- Sagardotegiko menua

**TXOTX GARALA IREKIA**

102 Meaka suzoa - 20304 IRUN - Tfnoa 943 623 130

**José I. Gonzalez Enguita**

penturakia

barrikadak eta faxadak

tel. 666 235 466



OSPAKIZUNAK → MARTXOAREN 26AN

## Malerrekako eskola ttikien joku topaketa herrian egingen da aurten

Kasik 200 neska-mutiko espero dira

### Maider PETRIRENA

Martxoaren 26an ospatuko dute Malerrekako eskola ttikien joku topaketa Sunbillan eta kasik 200 haur espero dituzte egun horretan, Haur Hezkuntzako 75 ikasle Lehen Hezkuntzako 112.

Goizeko 9:00etan elkartuko dira ume guztiak eta adinaren arabera taldeetan banatuko dira, bakoitza bere kolo-rea eta irudiarekin. Ordu-tegi ezberdinetan tailerrak, ginkana-jokoak eta zinea izanen dute. Bazkaria izanen dute eta bazkalondoan, kalejira eta Txantxariak taldearen emanaldia.

### Udako ludotekarako monitorea behar da

Uda hurbiltzen ari den horretan, ludoteka zerbitzua ateratzeko monitorea beharrik izan du Guraso Elkar-teen. Interesa duenak eman dezala bere izena eta telefono zenbakia herrietako ostatu-rola dendetan jarrita dagoen zerrendan, martxoaren 31 arte. Bide batez animatu gurasoei beraien seme-alabak (2-7 urte bitartekoak) zerbitzu honetara apuntatzeko. Eskolan dauden haurrei papera emanen zaie, baina oraindik eskolan ez daudenak eta interesa dutenak lasai ederrean deitu dezate-  
la 679332358 telefono zenbakira.



### Ba al zenekien...

Estitxu Arretxeak irabazi duel inauterietako bigarren argazki lehiaketa



ARGAZKIAK: JOKIN PETRIRENA ETA MAIDER PETRIRENA

### Kinto bestak fuerte hasi dira


Kinto bestak ere fuerte hasi dira ospatzen herrian eta hemen ditugu ikusgai bi argazki. Bata otsaileran 22an ospatu zena, hain zuzen ere 1959-1960an jaiotakoena eta bigarrena berriz martxoaren 2an ospatu zena 1957an jaiotakoena.



ARGAZKIAK: JAIONE OTXANDORENA

### Mus txapelketa jokatu zuten Arkupeak elkartearen besta

Arkupeak jubilatutako elkartearen besta egin zuten Aritzigain kanpinean otsaileran 24an. 7 bikotek parte hartu zuten mus txapelketan. Ondoren bazkaria izan zuten musikarekin. Musean txapeldunak Itxegi eta Juana Mari izan ziren eta Estefani eta Gregorio azpitxapeldun.



ARGAZKIAK: ANA BELEN AGERREBERE ETA ANA URROZ

### Herriari buruzko proiektuan ari dira Haur Hezkuntzako ikasleak

Haur Hezkuntzako 1., 2. eta 3. mailakoak Sunbillari buruzko proiektu bat egingen ari dira eta horretarako bai guraso, atautxi-amatxi eta etxekoei informazioa eskatu digute, baita herriko erakundeetara bisita egin ere. Martxoak 1ean 3. mailakoak Udalara bisita egin zuten eta bertan Amets Inda alkatesari galderak egiteko aukera izan zuten. Horrez gain pleno aretoa eta udala ere ikusi zuten. Martxoak 5ean berriz, 1. eta 2. mailakoen txanda izan zen. Hauek ere alkatesari galderak egin zizkieten baita udala, farmazia eta harategia bisitatu ere.

### Herriko hiru pilotarik Malerrekako txapelketako finalak jokatu dituzte

Otsaileran 22an Malerrekako hamekagarren eskuz banakako pilota txapelketaren finalak jokatu ziren Donezteben eta bertan sunbildarrek ere parte hartu zuten. Benjamin C2 kategoriko finalean, bi herritarrek, Xuban Zelaietak eta Pablo Irazokik aurrez aurre jokatu zuten. Txapelduna Xuban Zelaieta izan zen 18-12 irabazi baitzion bere adinekoa, taldekoa eta herrikoa den Pablari. Enaitz Portuk ere final batean parte hartu zuen eta azpitxapelduna gelditu zen. Zorionak hemendik deni.

ARGAZKIAK: LOURDES INDAKOETXEA



# DONEZTEBE

GIZARTEA → EMAKUMEAREN EGUNAREN HARIRA

## 'Mariposas en el hierro' dokumentala ikusgai izanen da ortziralean zineman

Bertha Gaztelumendi zuzendaria eta filman elkarrizketatu den emakume bat ere bertan izanen dira

Dokumental hau iazko Donostiako zinemaldian estreinatu zen eta lehen aldiz dator gure eskualdera. Gaia ba-ke da, baina emakumearen ikuspegitik.

### Haur Eskolan aurrematrikula

Askin Udal Haur Eskolan aurre-matrikula egiteko epea martxoaren 22ra arte irekita dago eta aukera dago jor- nanda osoa edo erdia aukeratzeko. Horretarako Haur Eskolara (948 451868) edo Herriko Etxera joan behar da. «Haur Eskola espazio pribilegiatu bat bihurtzen da berdin arteko harremanetarako, komunikaziorako, autonomiarako, autokontzepturako. Hezkuntza espazio hau haurrak berezkoak dituen ahalmenak, potentzialitateak eta aberastasunak garatzen laguntzen du» e- rran digu Diana Pruña zuzendariak. Aitzineko



UTZITAKO ARGAZKIA

### 2012an jaiotako haurrek badute bere zuhaitza Bordaxurin

Azkeneko urteetako ohiturari eutsiz, joan den urtean herrian sortutako haurren izena idatzia daraman zuhaitza landatu dute gurasoek. 2012an hamabi haur sortu ziren Donezteben. Landaketa martxoaren 3n egin zen goizeko 10:30 al- dera. Ameziako magalean, Bordaxuri inguruan. Landaketaren ondoren uda- lak xingarra, txistorra, gazta eta pastak jatera gonbidatu zituen guraso- ak. Goiz ederra pasa zuten, aspaldiko partez eguzkia lagun baitzuten.

### TTIPI-TTAPA

Nazioarteko emaku- mearen eguneko ildoan, ortziral honetan, martxoak 15, Bertha Gaztelumendik zuzen- dutako *Mariposas en el hierro* dokumentala emanen dute zineman, 19:30ean. Bertan izan- nen dira Bertha Gazte- lumendi zuzendaria eta filmean elkarrizketatu- takoen arteko bat, Ta- mara Muruetagoiena. Malerreka Trukerrekak antolatu du emanaldia, Udalaren eta Gazte Bu- rrunba elkartearen la- guntzarekin eta sarrera 3 euro ordaindu behar- ko da.

ale batean aipatu beza- la, heldu den ikasturte- an lehen aldiz edoski- tzaroan dauden 4-12 hi- labeteko haurrentako gela eskainiko dute, zortzi lagunentzako to- kiarekin. Martxoaren 9an, Haur Eskola gura- soei ezagutzera emate- ko Ate Irekien Eguna izan zuten.

### Birziklapen tailerra

San Migel eskolako ikasle batzuk Malerre- kako Mankomunitate- ak eta CRANak antola- tutako birziklapenaren

### Ba al zenekien...

Espainiako Kalitate Turistikorako Institutuak (IC- TE) banatzen duen kalitate turistikoaren Q ziur- tagiria lortu duen turismo aktiboko enpresa ba- karra izan dela Doneztebeko Leurtza Abentura



inguruko tailer batzue- tan parte hartu zuten

martxoaren 6an eta munstro bat egin zuten.

948 631 218  
Kanttonberri 1, BERA  
BIZIKLETEN SALMENTA ETA KONPONKETA  
**KATEA-BIKE**

**ARTEKARI TALDEA**  
ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA

- Langile autonomoak
- Nekazariak eta mendi langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-Kontrabuztutarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitortpenak
- Eibarritasun eta jubilazio espedienteak
- Bidegarritasun planak eta aurrekontuak

artekari@artekari.com

LESAKA: Biltzira, 71-behea - Tel: 948 637 050 - Faxa: 948 637 050  
BURLATA: La Viña, 4 - Tel: 948 133 328 - Faxa: 948 133 713

LANGABEZIA → OTSAILEAN ERE GOITI EGIN DU LANGABETU KOPURUAK

# Eskualdeko hamar langabetutik lauk ez du deus kobratzen

1.536 langabetu zeuden otsail hondarrean

## TTIPI-TTAPA

Langabeziko datuak gero eta kezkarriagoak dira eskualdean eta otsail hondarrean 1.536 langabetu zeuden Donetztebako Enplegu Bulegoan izen emanak, ilbeltzean baino 36 gehiago. Langabetu kopurua neurtzen denetik inoiz ez dira hainbertze izan eskualdean eta Nafarroako osoko banaz bertzekotik (%1,67 igoera) goiti igo da Donetztebekoan (%2,40 gehiago). Egoera oraindik kezkarriagoa ageri du ondoko koadroak, langabetuen %41,66ak ez baitu dagoeneko langabezi-prestaziorik kobratzen.

LANGABEZIA-DATUAK HERRIKA   2013ko OTSAILA				
Herria	Populazioa 2012	Lanik gabe guztira	Langabezi-prestaziorik kobratzen dute?	
			EZ	BAI
ARANO	121	6	0	6
ARANTZA	645	25	8	17
ARESO	276	8	2	6
BAZTAN	8.035	389	158	231
BEINTZA-LABAIEN	242	12	5	7
BERA	3.798	222	87	135
BERTIZARANA	628	47	24	23
DONAMARIA	436	27	17	10
DONEZTEBE	1.694	142	65	77
ELGORRIAGA	205	19	13	6
ERATSUN	160	13	7	6
ETXALAR	818	51	19	32
EZKURRA	164	8	2	6
GOIZUETA	758	44	18	26
IGANTZI	634	31	11	20
ITUREN	518	36	13	23
LEITZA	2.916	161	68	93
LESAKA	2.807	166	66	100
OITZ	155	9	4	5
SALDIAS	118	14	8	6
SUNBILLA	665	53	19	34
URDAZUBI	378	12	8	4
URROTZ	180	12	7	5
ZUBIETA	295	20	7	13
ZUGARRAMURDI	243	9	4	5
<b>Denetara</b>	<b>27.189</b>	<b>1.536</b>	<b>(%41,66) 640</b>	<b>(%58,33) 896</b>

## ELGORRIAGA

Korrikako kilometro bat hartu du herriak igandean

## Mattin LARRALDE

Korrika 18 gure esku-aldera etorriko da martxoaren 17an, igande goizaldean. Herriak kilometro bat hartu du N121A errepideko 52. km-an, goizeko 6:48 aldera. Ordutegia batere egokia ez bada ere, espero dugu jendea animatzea korrika egitera gure hizkutzaren alde.

## Elurra

Otsailaren akabilako astebukaerak elurra hurbildu da herriaren ertze-tara. Haur eta gazteek jostatzeko eta elur pilota batzuk elkarrerit botatzeko aukera izan dute eta pozez txoratzen ibili dira egun horietan. Erran beharrik ez da es-talpe txuriak xarma berezia ematen diola herriari.

**merkealdia**  
Azken egun: martxoak 17

1951tik  
**Casa Cambra**  
lentzeria-etxea  
Tafalla, 13 • IRUÑEA • 948 230 634



**edredoi fundak • albormozak • edredoi nordikoak • ohe estalkiak • maindireak • mantelak • kuxinak • toailak**

# EZKURRA

OSPAKIZUNAK → 34 LAGUN IBILI ZIREN HILAREN 2AN

## Kaleak kantuz bete ziren Malerreka Kantuz saio berrian

Gauean bertso afaria izan zen Irazu eta Zubeldia bertsolariekin

**Fernando ETXEBERRIA**

Kantuz bete ziren Ezkurrako kaleak martxoaren 2an. Ohiturari eutsiz Malerreka Kantuz ospatu baitzuten martxoko lehenengo larunbatean. Eguerdiko 12:00etatik aitzinera 34 laguneko taldea kantuan aritu zen bi ordu eta erdiz. Pilotalekutik hasi eta herrian barrena euskal kantuak zabaldu zituzten giro ederrean. Gero, Barranka ostatuan bildu ziren eta luntxa dastatu ondotik, kantuan segitu zuten. Gauean, bertso afaria izan zen Zubeldia eta Irazu bertsolariekin. Jose Angel ere bertan izan zen eta jotako piezekin

goizaldeko laurak arte aritu ziren dantzan han bildutakoak.

### Eskolaren etorkizunari buruz datu berriak

Udalak, agiri bat bidali die herritar guztiei eskolaren inguruan dauden datu berriak zabalatzeko. Bertzeak bertze, egungo egoera zein den azaldu eta berritze lanak egiteko dauden eragozpenak irakurri litezke bertan. Krisi ekonomikoak ez du laguntzen eta lanak auzolanean egitea ezinezkoa dela aipatzen dute, lan-istripuak gertatzeko arriskua handia delako. Horren ondorioz, proiektu bat idatzi du Udalak eta inguruko enpresen artean eskaini nahi dute. Proiektu horretan zehaztu dute obrak hartzen dituen enpresak, gutxienez zer egin behar duen: Teilatua be-



ARGAZKIAK: FERNANDO ETXEBERRIA

Malerreka kantuz Ezkurrako kaleetan eta bertso afaria Barrankan.

rritu, lau paretak eta lehoiak berritu, 1.go eta 2. solairuko lurzorua bota eta beheko solairuko obra egina utzi.

Gisa honetako aferetan, zenbat buru, hainbat aburu.... Horregatik, udalak informazioa emateaz gain, herritarrei beraien proposamenak egiteko bidea zabaldu nahi die.

### ARKUPEAK

Mus txapelketaren final handia martxoaren 21ean Hondarribian

**Fernando ETXEBERRIA**

Herriz herri jokatu diren Arkupeak elkarteko mus txapelketetako txapeldun eta txapeldun ordeek hitzordua izanen dute martxoaren 21ean Hondarribiko Ardora jatetxean. Aitzinetik, hilaren 14an, Aginagako sagardotegira joatekoak dira erretiratuen elkartekoak.



HILABETE HONETAKO  
ESKANTZA

80€

250 Bisita txartel

Koloretan bi aldeetatik  
300g (85cm x 35,4cm)  
Disainua + inprenta + garraioa  
BEZa barne  
Epea: 10 lan egun

**BISITA TXARTELAK**  
TURISMO ETXEAK - LANTEGIAK  
JATETXEAK - DENDAK - TAXIAK



Herriz herri bidea. T - T | 31770 LESAKA  
948 435 458 | www.ttipi.net | info@ttipi.net



# TTIPI-TTAPA FUNDAZIOAK

## ZURE LAGUNTZA BEHAR DU

AUKERATU  
GURE PROIEKTUA

10€

Eginzazu TTIPI-TTAPAREN alde  
PROIEKTU ZENBAKIA 50063

Zuri ez zaizu dirurik kostako,  
guri 10 euroko laguntza emanen digute

**Ez da beharrezkoa** CAN edo La Caixako bezero izatea.

Nahikoa da Nafarroan erroldatua egotea,  
18 urte baino gehiago izatea eta  
TTIPI-TTAPAREN proiektua aukeratzea.

**Bete zure datuekin** orrialde honen bueltan galdetzen dena,  
**sinatu eta bidali TTIPI-TTAPAra** lehenbailehen:

Epea martxoaren 31n bukatzen da.

TTIPI-TTAPA  
KASKONTAKO BIDEA, 07 - 1  
31770 LESAKA

Nahi izanez gero, internetez ere egin daiteke,  
<http://www.cajanavarra.com> web orrian sartuta.

Zalantzaren bat izanez gero, deitu 948 63 54 58 telefonora.

*Mila esker*

# TÚ ELIGES: TÚ DECIDES 2013 CAJA NAVARRA

**ELIGE  
UN PROYECTO...  
¡Y PARTICIPA!**

**10€**

Si eres mayor de 18 años y estás **censado/a en Navarra**, puedes elegir un proyecto social al cual **Caja Navarra aportará 10 euros**. Entra en nuestra página web **www.cajanavarra.com**, en el apartado 'Tú eliges: tú decides 2013': allí encontrarás todos los proyectos que han presentado las entidades sociales. Cuando hayas encontrado uno que quieras apoyar, toma nota de sus datos.

Tu elección es modificable **hasta el 30 de marzo de 2013** y, para que se haga efectiva, debes entregar esta hoja completa en cualquiera de los siguientes puntos: • Caja Navarra, Carlos III, 8 (Pamplona) • Civicam, Pío XII, 2 (Pamplona) • Casa del Almirante, calle de la Rúa, 13 (Tudela) • Sede de la entidad social que hayas elegido • Clubs de jubilados ActivosCan.

Yo,

Nombre y apellidos			
Domicilio			
Localidad		CP	
Teléfono	E-mail		
DNI [número y letra]		Fecha de nacimiento	

elijo este proyecto del programa 'Tú eliges: tú decides 2013'

Nombre del proyecto	Ttipi-Ttapa, eskualdeko komunikabideak		
Nº de Proyecto	50063	Entidad social	TTIPI-TTAPA FUNDAZIOA
Quiero recibir información sobre este proyecto y entidad [sí o no]			<input type="checkbox"/>
Quiero hacer voluntariado [sí o no]			<input type="checkbox"/>
Fecha de elección	Elección entregada a (entidad social o lugar)		31770-LESAKA

Mi firma,

De autorizar la normativa sobre el uso de datos de carácter personal Caja Navarra y Monte de Piedad de Navarra la informa que los datos de carácter personal que se recogen en esta hoja, y en especial su imagen, se van a incorporar a un futuro fichero de Caja de Ahorros y Monte de Piedad de Navarra, responsable del fichero, con domicilio en Avda. Carlos III, 8-32002 Pamplona (Navarra), con la finalidad de gestionar y controlar las solicitudes de participación en "Comuna" de Caja Navarra, para promover facilitar la información y la comunicación con las Entidades participantes, autorizando la utilización de cualquier medio incluido los medios electrónicos. Asimismo consiente expresamente y autoriza a Caja de Ahorros y Monte de Piedad de Navarra exclusivamente para el cumplimiento de los fines directamente relacionados con las finalidades para las que fueron solicitados, que puede

usar todos los datos personales o las entidades pertenecientes al Grupo Caja Navarra y en concreto a la Fundación Caja Navarra del mismo sentir los datos al Instituto Nacional de Estadística (INE) con la finalidad de comprobar su condición de residente en Navarra mayor de 18 años así como a "EuzkoTzuzki" a los efectos de verificar la elección. Queda informado de la posibilidad de ejercer en cualquier momento los derechos de acceso, modificación, cancelación y oposición de sus datos, en los términos previstos en la legislación vigente, pudiendo utilizar para ello cualquiera de los canales de comunicación de Caja de Ahorros y Monte de Piedad de Navarra así como mediante comunicación escrita remitida por correo ordinario a la dirección del responsable del fichero anteriormente mencionado o por vía de dirección de correo electrónico: cajavarra@cajanavarra.com

CORTA POR ESTA LÍNEA Y QUÉDATE CON EL RESIBIDO COMO GARANTÍA DE TU ELECCIÓN.

**Mi justificante de elección 2013**

Nombre y apellidos			DNI	
Nombre del Proyecto	Ttipi-Ttapa, eskualdeko komunikabideak			
Nº de Proyecto	50063	Entidad social	TTIPI-TTAPA FUNDAZIOA	
Fecha de elección	Elección entregada a (entidad social o lugar)		31770-LESAKA	

GIZARTEA → IKASTAROAK

## Udalak antolatutako ikastaroetan izena emateko epea hilaren 14an akituko da

Kurtsoei buruzko informazio bilera martxoaren 18an egingen da

### Arkaitz MINDEGIA

Ikastaro batzuk antolatu ditu Udalak, Nafarroako Gobernuaren Kultura Departamentuaren laguntzarekin: Informatika (lehen urratsak informatikan eta posta elektronikoa sortu...); Euskara (EGA titulua, alfabetatzea euskaldun zaharrei zuzendu eta *Acercate al euskara*); Arropa konponketa (jostea, arropa konpontzea...); Baratzeko teknikak eta Argazkilaritza eta Bideoa (bi mundu hauetan hobekiago eza-gutu eta gauza politagoak ikasteko).

Bost kurtso hauetan izena ematen ahal da udaletxera deitu edo [udala@ituren.es](mailto:udala@ituren.es) helbi-

de elektronikora idatzi. Martxoaren 14an akituko da epea. Ikastaroari buruzko xehetasunen berri izan eta zalantzak argitzeko martxoaren 18an, astelehen arratsaldeko 7:00etan udaletxean bilera egingen da. Kurtso guztiak Aste Santu ondotik hasiko dira eta laburrak izanen dira.

Bertze aldetik, egur loteak banatu ditu berriki Udalak. Herriko edozeinek egiten ahal zuten eskaria eta norbere etxean entregatu zuten egur lotea. Egur loteak botatzen eta banatzen *Maderas Enbor* enpresa aritu da.

### Pulunpa eskola

Pulunpa eskolako guraso elkartekoak lanean dabilta. Martxoaren 5ean mintzaldi bat izan zuten, bertan *die-ta osasuntsua* landu zuten Kimetz belardendako Lorea Agirrerekin. Mintzaldia herriko eta Malerrekako gurasoei



UTZITAKO ARGAZKIA

### Herriko inauteriak Potesen

Nahiz eta gure herriko inauteriak aspaldi pasa ziren, Iturengo joaldunak eta trikitilariak Potesen (Asturias) izan ziren hango inauterietan parte hartzen. Herriari buelta emanaz beraien joare soinu eta trikitixarena ederki zabaldu zuten hartza lagun zutela, hemengo kultura erakutsiaz.

irekia egon arren, jende gutti animatu zen. Halere, martxotik kurtso bukaera bitarte hilabetero miltzaldi desberdinak izanen dira.

### Korrika 18

Aurten ere ez da Korrika herritik pasako, baina herritarrak ez dira Korrika gosez geratuko.

Hasteko, Pulunpa eskolakoek Korrika Ttiki antolatu dute, martxoaren 15ean izanen da, arratsalde partean hasita. Egun honetako beraien petoak prestatzen ari dira eskola or-

duetan. Lekukoaren barrenean, hurrek prestatuturiko testua sartuko dute eta ibilbidea akitu ondotik plazan bilduko dira denak, leloa irakurri eta murrizketen kontrako argazkia ateratzeko. Indarberritzeko, Guraso Elkarteak antolatutako txokolatea jango dute guztiek.

Korrika ofiziala herritik pasatzen ez bada ere, herriko jende aunitzek parte hartuko du bere kilometroa eginez. Martxoaren 17an goizaldean Bortzirietatik sartuko da Malerrekako

ra. Udalak kilometroa hartua du Sunbillako bi-degurutzean, baina lehenagotik 638 kilometroan Malerrekako herrietako eskoletako guraso, haur eta irakasleek hartuko dute leku-koa 06:40 aldera.

### Jubilatuen bazkaria

Otsailaren 24an bazkari baten inguruan bildu ziren eskualdeko jubilatuek, Zubieta, Elgorriaga eta Iturengo 38 lagun. Ederki bazkaldu zuten Altxunea erretegian, ondotik mahainguran ederki gozatu.

**IPARLA**  
kirolak

Correlijana

ttipi baretela

**%8ko**  
DESKONTUA  
30€tik gorako gastuan

**Alberto RETEGI**  
abokatua  
abokatua

948 630 763 - Altzate, 17 - BERA

**BAR Botxo**  
OSTATUA

Zelai • BERA • 948 630 052

**Karsuk®**

Muebles de cocina  
Moules de cuisine  
Sukaldeko altzariak

Karlos Pombar Sainz

C/Sara 1 bajo local C  
31780 Bera (Na)  
T/F +34 948 625 430  
M +34 699 884 084  
info@karsuk.eu  
www.karsuk.eu

## ZUBIETA

GIZARTEA → ESKAINTZA BAKARRA AURKEZTU DA

# Herriko Ostatua martxoaren 22an berriz ere irekitzeko asmoa dago

Hedabideen aldeko mus txapelketa ere bertan jokatu litzake

### Fermin ETXEKOLONEA

Herriko Ostatua hartzeko proposamen bakarra aurkeztu da Herriko Etxean. Udal ordezkariak martxoaren 5ean bildu diren proiektua aztertzeko eta hasierako oniritzia eman

zitzea. Julieta Itoizek aurkeztutako proiektua ere interesgarria iruditzen zaie udal ordezkariari. 37 puntu eman zitzaizkion proiektuari. Orain, eskaintza ekonomikoa martxoaren 15ean aztertzekoa dute Herriko Etxean eta beste okerrik ez bada, bera izanen da ardura-duna, baldintza guztiak betetzen baititu. Martxoaren 22an irekitzeko asmoa du. Hedabideen aldeko mus txapelketa



ARGAZKIA: FERNANDO ETXEBERRIA

### Herriko jubilatuen ituren eta Elgorriagakoekin batera bazkarian

Otsailaren 24an bildu ziren Iturengo Altxunean Ituren, Aurtitz, Elgorriaga eta Zubietako Arkupeak elkarteko 38 jubilatuek, urteroko festatxo egitera. Zubietatik hamar erretiratu hurbildu ziren eta ederki pasatu zutela aipatu digute. Arkupeak elkartearen eskutik Donezteben ematen ari diren kimaketa ikastaroan ere bi zubietar ari dira: Xanti Hualde eta Migel Arregi.

ere martxoaren 23an egiteko intentzioa du, martxa ematen hasteko. Udalak ere parte hartuko du Xorroxin, Xaloe eta Ttipi-Ttaparen aldeko mus txapelketa laguntzen, sariren bat jarritako.

### Egur loteak egiteko hiru eskaintza

Egur loteak egiteko hiru eskaintza aurkeztu dira eta azkeneko erabakia martxoaren 15eko plenoan hartuko du Herriko Etxeak.

### Emakumearen Eguneko afaria

Emakume langileen eguna dela eta, afaria egin zuten martxoaren 9an herriko estalpean. Giro ederrean eman zuten gaua.

## BERTIZARANA

GIZARTEA → NARBARTE ETA LEGASA

# Inauterien ondotik kontuak egiteko garaia ailegatu da

Legasan, puskak Paris 365 jangela sozialari eman dizkiote

### Martin BERTIZ

Inauteriak etorri bezala joan dira eta orain zorrak kitatzeko momentua ailegatu da, Es-

ter janari dendan jarrita dago zerrenda eta han agertzen da bakoitzak ordaindu beharra.

### LEGASAKO PUSKAK PARIS 365 JANGELA SOZIALERA

Beti lagundu beharra da albokoari baina krisi garaian gehiago, ondo daki hori Legasako herriak eta aurten



ARGAZKIA: MARTIN BERTIZ

Azkenean elurra, horrenbeste euri ondoren pasa den otsailaren 21ean argazkian ikus daiteken itxurarekin ernatu zen herria.

inauterietan bildutako puskak Paris 365 jan-

gela sozialari eman dizkiote. Inauterietan

ere, elkartasuna ahazten ez denaren seinale.



GIZARTEA → MARTXOAREN 2AN

## Batzordean aldaketak egin ditu Umore Ona elkarteak

Martxoaren 24an hirugarren mendi buelta egingen da

### TTIPI-TTAPA

Umore Ona elkarteak urteko ohiko batzorra ospatu zuen martxoaren 2an. Besteak beste, 2012ko kontuak eta 2013ko aurrekontua aho batez onartu ziren. Gainera komisionan bi urtez lan egin ondoren Gorcka Irazusta, Daniel Oiarzabal, Eneko Lopez, Laxaro Aizkorbe eta Aritz Loiarrek utzi dute eta beraien lekuan, Luis Ignazio Loiarre, Igaratza Apezetxea, Josu Garmendia, Egoitz Zubiri eta Iban Loiarre sartu dia batzordean.

### Goizueta ezagutzuz

Martxoaren 24an egingen du *Goizueta ezagutzen* hirugarren mendi buelta Umore Onako



mendizale taldeak. Goizeko 9:00etan plazatik abiatu eta Itxortxa, Bistalekuko borda, Ikatzola, Sanpedroko borda eta Olatxon barna ibili ondotik herrira itzuliko dira. Kostako zaie otsailaren 24ko tamainako eguraldi bikaina izatea. Elurra mendian eta eguzkia aurpegietan, 11 kilometroko ibilbidea, hiru ordu terdian egin zuten 30 bat lagunek.



ARGAZKIA: IGOR ELIZEGI

Otsailaren 24ko mendi buelta giro ederrean egin zuten.



### Pertsonaia

Iker SALABERRIA

### Malerrekako txapeldun

Aurreko alean aipatu genuen *Pelotamano* rankingean infantil mailako Nafarroako pilotari onena izendatu zutela Iker Salaberria. Bada, lehen postu hori sendotu egin du orain, Malerrekako eskuz binakako txapelketa irabazita. Otsailaren 23an Donezteben jokaturako finalean, Iruñeko Jon Mariezkurrenarekin batera 18-11 irabazi zieten Ataungo Zubizarreta eta Azpeitiko Alberdiri.

### GIZARTEA

## Suhiltzaile boluntarioentzat saria

### TTIPI-TTAPA

Ezusteko saria jaso zuen martxoaren 2an suhiltzaileen boluntarioen taldeak. Egun horretan Foruzaingoaren Eguna ospatzen zen eta Nafarroako Gobernuak hainbat sari banatu zituen, bai Nafarroako polizia ezberdinei, baita urtean zehar egindako lanarengatik nabarmendu diren pertsona, talde eta erakundeei ere. Oroigarrietako bat herriko suhiltzaile boluntarioentzat izan zen eta denen izenean

Ibon Elizegik jaso zuen errekonozimendua. Talde honek urteetan egin duen lana goraiatu zuten Iruñean. Hain zuten 1996an sortu zen taldea eta gaur egun 30 bolondres ditu, «16 suhiltzaile lanean eta 14 anbulantziarekin», hasieratik bertan ari den Elizegik aipatu digunez. Hain zuten, Nafarroa osoko suhiltzaile boluntario talde guzaien artean Goizuetakoak bakarrik du anbulantzia. Joan den urtean 65 urteera egin zituzten.



ARGAZKIA: NAFARROAKO GOBERNUA

Ibon Elizegik jaso zuen oroigarria, suhiltzaile guzaien izenean.

## LEITZA

JENDARTEA → MOZIOA AZTERTUKO DA OSTE GUNEAN

# Maxurrenea Herrintzat Plataforma lanean ari da

Hamar urte  
pasa dira  
herriko etxea  
behar zuena  
guardia zibilaren  
kuartela bihurtu  
zutenetik

JM BARRIOLA

10 urte pasa dira, Maxurrenea, herriko etxea izan behar zena, guardia zibilaren kuartel bihurtu zutenetik. Hori dela eta "Maxurrenea herrintzat" plataforma, herriko eragile ezberdinekin biltzen ari da eta kanpaina bat jarri du habian. Izan ere Nafarroko Gobernuak, leitzarren nahi eta beharrei muzin eginez 15 urterako Espainako Gobernuari utzi zion kuartel gisa erabiltzeko 2003. urtean. Orain 10 urte igarota, Nafarroko Gobernuak, kontratua bertan behera uzteko ahalmena du. Horregatik, "Maxurrenea herrintzat" taldeak hainbat ekimen burutuko ditu datozen hilabeteetan. Kontratu hori bertan behera utzi eta eraikina herriari itzultzea eskatzen dute, herriko beharrei erantzuna emanez. Martxoaren 14an Udaltzatza berezian gaiaren inguruko mozioa aztertuko da eta ondoren prentsaurrekoa emanen dute. Herritarrei bertara azaltzeko

deia egin die taldeak. Emanen duten hurrengo pausoa Nafarroko Gobernuari eskaria bideratzea izanen da.

## Nafarroako ondarearen defentsarako plataformak

Nafarroako ondarearen defentsarako plataformak bidalitako mozioa onartu du Udalak eta honela, apirilaren 6an eginen den batzarreko joatekoak dira udal ordezkariak. Legealdi honetan urrats berri bat eman nahi da. Izan ere, hipoteka legearen gehiegizko erabileraren bidez, Nafarroko artzapezpikutzak, bere ize-nean jarritakoak bertan behera uztea, eta bestetik, ondare historikoa horren jabetza, Nafarroko herriena dela aitortzea du helburu. Horretarako herri guztien mugimendua jarri zen martxan lehengo legealdian, eta orain jarraitu pena emateko asmoa dute batzar horretan.

## Herrira Eguna antolatu dute martxoaren 16an

Herrira Eguna antolatu dute gurean martxoaren 16an. Egun guztian izanen dira ekimenak. Larunbat eguerdiko 12:00etan, plazan agurra eginen da,



ARTXIBOKO ARGAZKIA

2009ko abenduan «Maxurrenea herrintzat» eskatuz egin zen manifestazioaren irudia.



ARGAZKIA: FERNANDO ETXEBERRIA

## 64 bazkide bildu ziren Arkupeak elkartearen pestan

Arkupeak elkarteko Leitzako 64 bazkide bildu ziren martxoaren 2an Landa ja-tetxean egin zen urteko pestan. Bazkalondoan, mus txapelketako txapeldun eta txapeldun ordeei sariak eman zitzaizkien. Josefina Matxain eta Angel Arribillaga suertatu ziren txapeldun eta Jose Mari Elizalde eta Lucio Irazoki azpitxapeldun. Martxoaren 21ean Hondarribian jokatu den txapelketa nagusirako txartela lortu zuten lauek. Bazkalondoa Joxe Angelekin dantzari eman zuten.

dantzarien saioarekin eta bertsolari hauekin: Uxue Alberdi, Aitor Mendiluze eta Leitzako bertso eskolako kideak. Ondoren bertso poteoa. 14:00etan gaztetxean bertso bazkaria 18 eurotan, 19:00etan plaza-tik manifestazioa abiatuko da "Euskal preso eta iheslariak etxera!" aldarrikatuz. 23:30etan gaztetxean kontzertuak, ASKE eta Garraxi taldeen eskutik.



GIZARTEA → MOBILIZAZIOAK

# Murrizketen kontrako Ostegun beltzak ailegatu dira eskolara

Egun horretan beltzez jantzten dira irakasle, ikasle eta gurasoak

**Juana Mari SAIZAR**

Eskola publikoaren alde eta murrizketen aurka mobilizazioak egiten ari dira Aresoko Nazabal eskolako irakasleak, ikasle eta gurasoak, *Ostegun beltzak* lelopean, beltzez jantzita ibiltzen dira egun horretan eta eskolako kanpoaldean izugarritzko pankarta jartzen dute pro-

testa moduan, murrizketahorien ondorioak hezkuntza kalitatearen eragina zuzenean baitu. Nornahi hurbildu daiteke elkartasuna adieraztera.

**Igeriketa ikastaroa**

Bestalde eta Guraso Elkarteak antolatuta, igeriketa ikastaroa martxan jarriko da hiru hilabetez. 19 ume apuntatu dira Lekunberriko igerilekura joateko eta astean bi egunetan izango dituzte saioak. Ikastaro hauek doan aterako zaizkie, alde batetik udalak diru laguntzak

ematen ditu kirola egiteagatik, eta bestalde, Guraso Elkarteak beste erdia ordaintzen baitie bere bazkideei.

**Emakumeen Eguna**

Martxoaren 8an, Emakumeen Nazioarteko eguna zela eta, beste hainbat herrietan bezelaxe Areson ere ekitaldiekin ospatu zen. Arratsaldean emakume gazteek pairaturiko eraso sexiste buruzko pelikula eman zen, udaltxeko lehen solairuan, eztabaida izan zen ondoren eta bukatzeko afari merienda.



ARGAZKIA: ETB

**Ur eta Txomin bikain ibili dira ETBko Mihiluze saioan**

Mihiluze programan, ETB1 kateko lehiaketan, Ur eta Txomin lagunek parte hartu dute, baita sari ederra bildu ere. Bederatzi programatan aritu dira eta 10.300 euro lortu dituzte. Listoia altua jarri dute eta herritarrak asko poztu gara, zorionak beraz eta disfrutatu dirua gastatzen.

**Egur lotea**

Udalak egur lote bat atera du enkantera. 5.780 zuhaitzekin 2.300 metro kubiko egur eta zura ematen dute de-

nera. Martxoaren 15ean, 13:00ak arte apuntatu daiteke, eta 14:00etan sobreak irekiko dira. 13 gonbidapen banatu ditu udalak.

**KORRIKA 18 BADATOR**

## Igande goizaldean sartuko da lekukoa Saratik eta Artesiagatik aterako da

**TTIPI-TTAPA**

Zapatilak jantzi eta euskaren alde Korrika egiteko aukera izanen dugu eskualdean. Martxoaren 17an, igandean, Sarara iritsiko da lekukoa 04:20an. Handik Lizuniagan barna Berako lurretan sartuko da Korrika. Herria erdi erdi zeharkatu eta N121a errepidetik Lesakako bide zaharretik barna joanen dira korrikalariak, 05:50an bidegurutzera iristeko. Pauso pauso, Etxalar eta Igantziko bidegurutzeetatik pasako dira, Nazional 121era berriro ateratzeko. Bidean aurrera egiten dute Sunbillara iritsi arte, herria zeharkatu eta Donezteberako bidea hartzeko. 07:25ean iritsiko da Doneztebera, herri barnera sartu eta bueltatxo

bat emanen du. Gero, Bertizaranara iritsiko da lekukoa, Narbartetik 07:50ean pasako da eta Baztango lehenengo herrira, Oronozera, 08:00ak inguruan iritsiko dira. Arraiozen barna, Iruritarra 08:35ean iritsiko da. Elizondon 09:00ak inguruan, buelta bat eman eta berriro bueltatzen Iruritarra joanen dira. Iruritatik goiti Artesiagako bidea hartuko dute, 11:00ak aldera lekukoa aldaketan egin eta Korrika eskualdetik aterako da. Azken egunean, martxoaren 24an, berriro egiten du eskualdera bisita, Baionara iritsi aurretik, Azkainetik pasako da 06:45ean eta Senperen 07:40an.

Baina gure ingurura ordu ttikietan etorriko dela kontu-



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Korrikak eskualdea zeharkatuko du igande goizean.

an hartuz, Korrika *haundiaz* gain, Korrika Ttikia ere egiten da hainbat herritan. Gehiengotan martxoaren 15a, ortzirala, aukeratu dute horretarako eta ikastetxeetan prestakuntzalanen ari dira buru-belarri.

Gainera, Korrika Kulturalaren baitan ere hainbat ekital-

di egin dira eta egitekoak dira egunotan. Erraterako, Bertso Korrika, euskaldun berriei egokitutako bertso saioa eta bertso musikatuak izanen dira ortzirelean Elizondon eta Lesakan omenaldia eskainiko da larunbatean.

Eman euskara elkarri!

# BAZTAN

UDALA → ERRENDIMENDUA ETA ESPARTZIMENDUA

## lazko kirol jardueretarako 47.340 euroko dirulaguntza eman du Balleko Etxeak

Bestetan antolatzen dituzten kirol ekitaldietarako sariak erosteko ehuna euro emanen zaizkie herriei

### TTIPI-TTAPA

2012an kirol jarduerak antolatzeko diru-laguntzak eman ditu Baztango Udalak. Denera 47.340 euroko laguntza eman du, 28.050 euro errendimenduko kirol jardueretarako eta 19.290 espartzimendukoetarako.

Errendimenduko kirol jarduerari dagokienez, CD Baztanek 6.750 euroko laguntza jasoko du; BRT-Menditarrak taldeak 7.350 euro; Txaruta Pilota Elkartek 4.550 euro, Baztango

Kirol Taldeak 7.650 euro eta Amaier Sokatira Taldeak 1.750 euro.

Espartzimenduko kirol jardueretarako, Baztan Ikastolak 1.500 euroko dirulaguntza jasoko du; San Francisco Javier ikastetxeak 3.800 euro; Laxoa Elkartek 1.200 euro; Baztango Mendigoizaleek 2.000 euro; Arania Kirol Taldeak 250 euro; Txaruta Pilota Elkartek 2.740 euro; CD Baztanek 2.000 euro; BRT-Menditarrak taldeak 1.400 euro; Basaburua Kirol Taldeak 1.000 euro; Baztango Kirol Taldeak 2.400 euro eta CC Baztandarrak 1.000 euro.

Honetaz aparte, Baztango Udalak ehuna euro emanen die herriei, herri bakoitzeko bestetan antolatzen diren kirol ekitaldietarako sariak eskuratzeko.



UTZITAKO ARGAZKIA

### 140 neska-mutiko Iruritako Kantari Topaketan

Baztango kantari ttiekiek hitzordua zuten otsailaren 23an Iruritan eta ez zuten hutsik egin. 140 neska-mutiko aritu ziren kantuan Elizondoko abesbatzak, Iruritako parrokiaren eta Guraso Elkartearen laguntzarekin antolatutako saioan. Elizondoko abesbatza ttiki eta Giltzarri txikikoei batera abestu zuten lehenik, bakarka gero eta saioa akitzeko Baztango Herrietako eskolak, Baztan Ikastola, San Franzisko Javier Ikastetxea eta Lekaroz Bhiko ikasleak bildu eta guztiek elkarrekin bertze bost kanta eskaini zituzten.

### ELKARTEAK

## Euskal Artzainak Ameriketara elkarrekin erakusketak eta hitzaldiak ematen ari da eskolaz eskola

### TTIPI-TTAPA

Euskal Artzainak Ameriketara elkarrekin, Baztango Udalak eskatuta, Baztango eskoletan erakusketak eta hitzaldiak antolatu ditu. Lehena, martxoaren 5ean egin zen Azpilkue-tan. Bertan, artzainen argazkiekin egindako panelak ikusgai paratu ziren eta Josephine Etcheverry, Alejandro Cordoba, Joxe Iturralde eta Fermin Barazabal ere bertan izan ziren beraien bizipenak kontatzen.

Martxoaren 11n Erratzura joate-

koak ziren eta 12an Arraiozera. Hilaren 14an Zigan izanen dira 12:00etan eta Oronozen 15:15ean; martxoaren 18an Gartzainen 12:00etan eta Iruritan 15:00etan; martxoaren 19an Arizkunen 12:00etan eta martxoaren 21ean Amaiurren 12:00etan.

Hitzaldi eta erakusketa hauekin, Baztango gazteei, orain dela urte batzuk bailarako gazteak bizitu zuten ezagutzera eman nahi zaie, baita, bertze lurraldeetan utzi zuten izen ona ere.



**Lur**  
diskoteka

musika berexia eta  
giro bestazalea  
Elizondoan, BAZTANen



garagardotegia  
larunbatero, arratvaldeko  
Betatik aurrera  
ERRESERBAK: 948 581 883

martxoak  
**23**  
sarturatsotz

**ROBERTO URRUTIA y SU MARIACHI**  
**AMANECEER**  
01:00h • Sarrera: 6€

apirilak  
**6**  
larunbata

**INGO AL DEU?**  
01:00h • Sarrera: 6€



KULTURA → OTSAILAREN 25ETIK MARTXOAREN 2RA

## Euskal Zinemaren Astean luzemetrai onenaren saria jaso du Baztan filmak

Elizondoko Mikel Pruaño produktoreak jaso zuen saria

### TTIPI-TTAPA

Caja Vital Kutxak 29. Euskal Zinemaren Astea antolatu zuen. 2012. urtean Euskal Herrian estreinatu ziren produkzioen artean selekzio bat egin zuen. Otsailaren 25etik martxoaren 2a arte zinemara hurbildu zen publikoak lan ezberdinak ikusteko aukera izan du.

Proiektzio guztiek, bai produkzioaren aldetik, bai grabatutako lekua-rengatik, bai zuzendararen aldetik, Euskal

Herriarekin lotura izan dute. Ikus-entzuleek eguneroko bozketaz, laburmetraia edo luzemetraiarik onena, emanaldi bakoitzaren hasieran eman zitzaizen txartelak erabiliz aukeratu zituzten. Martxoaren 2an, larunbatean, izandako sari banaketan sariak ezagutu ziren.

Honela, luzemetraiarik onenaren saria *Baztan* filmarentzat izan zen. Elizondoko Mikel Pruaño produktoreak jaso zuen saria.

Laburmetraiarik onenaren saria *Moster Do not exist* filmarentzat izan zen eta Gutako Bat saria Gorka Aginagalde aktorearentzat.



UTZITAKO ARGAZKIA

### Bertako Haziaren Eguna Elizondon lehen aldiz egin da

Otsailaren 23an ospatu zuten Bertako Haziaren Eguna Elizondon. Aurreko edizioetan baino lehenago izan da aurten eta kokalekua ere aldatu dute, Zubietan ospatu izan baita apirila aldean. Mezua jende gehiagorengana iritsiko zelakoan hartu zuten erabakia, baina helburua erdizka bete dela erran liteke, eguraldiak ez baitzuen lagundu. Giro kaxkarraren eraginez, kanpotik «espero baino jende gutxiago» hurbildu zela diote antolatzaileek, baina, bailaratik «jende aunitz» bertaratu zenez, eguna «ongi» joan zela aipatu dute. Goizean, Merkaturko plazan egin zuten hazi trukean, bertzeak bertze, Leitza, Arantza eta Etxalarko artoa, kalabaza haziak, ilarrak... trukatu zituzten. Eguerdian egindako mahai ingurua «arrakastatsua» izan zen, berrogei lagun inguru bildu baitziren Arizkuneneako aretoan. Hiru hizlarik osatu behar zuten mahaingurua, baina bat eri egoteagatik ez zen agertu eta azkenean, Jakoba Errekondo eta Jon Harluxet aritu ziren solasean. Bertaratu zirenen erranetan «hagitz gauza interesgarriak» aipatu zituzten. Ondoren gaztetxean bazkaldu eta Guajiroekin kantuan goxatu zuten bazkalondoa.



GRUPO TANATORIO TALDEA  
**IRACHE**  
MALDAERREKA S.L.

**24 ORDUKO TELEFONOA**  
948581959 | 948637404

LEKUNBERRI | BERA (SAN JOSE) | LESAKA | ELIZONDO (BAZTAN) | LEITZA | BETELU  
DONEZTEBE (SAN PEDRO) | ELIZONDO (BAZTANDARRA)

- TRASLADOAK IRUÑA, DONOSTIA ETA IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA -  
- LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK, ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK -

# BAZTAN

GIZARTEA → SAIHESBIDETIK SARBIDEA

## Elizondorako sarreraren herritarren erabakia errespetatuko duela jakinarazi du Udalak

Zubia egin beharko litzateke, «baina UPNren gobernuak hori gibeleratu du»

### TTIPI-TTAPA

Udal gobernu osoa duten taldeek adierazi dute saihesbidetik Elizondoko sarbiderako aferean elizondarrek erabakitzen dutena errespetatuko dutela. «Ez dugu inongo arazorik Baztan Berriko adarra hetsia kontzeko edo irekitzeko. Herritarrek erabaki beharko dute hori, ekartzen ahal dituen ondorio guztiak ongi baloratuta».

Alde horretatik, Balleko Etxetik jakinarazi dutenez, Elizondorat Baztan Berrin barna sartzeko aukera 2012ko ekainaren 15ean egin zen Elizondoko batza-

rrean solastatu zen, ehun bat herritarrek parte hartu zuten eta «zubia egin artio Baztan Berriko sarrera ez irekitzeko erabakia hartu zuen autoen, kamioien eta autobusen sarrerak eragin lukeen arriskuarengatik eta auzoko karrika estuetarat ekarriko lukeen pilaketarengatik». Saihesbidearen Elizondoko sarreraren kontua afera konplikatua dela onartzen du udal gobernu taldeak, «berez Elizondora sartzeko zubia egin beharko litzateke, baina UPNren Nafarroako Gobernuak hori gibeleratu du».

Diario de Noticias-en argitaratutakoa «Bertan merkatarien elkarrekin etsaitzeko gogoz idatzitako manipulaziotzat» jo dute udal gobernu taldeak, «baina Bertanekin harreman normalizatua dugu, elkarri errespetuz ari ga-



UTZITAKO ARGAZKIAK

### Murrizketen kontrako elkarretaratzekin segitzen dute eskoletan

Urdazubi-Zugarramurdi eta Baztango herrietako eskolak murrizketen aurkako elkarretaratzekin segitzen dute. Kalitatezko eskola baten alde, ikasle, guraso eta irakasleak bildu ziren, otsailaren 19, 21 eta 28an Erratzu, Arraioz eta Azpilkuetan (goitik beheiti) eta martxoaren 7an Iruritan.

ra eta elkarlana bultzatzen dugu». Alde horretatik, Bertanekin elkarlanean erosketak eta zamatan egin ahal izateko hemendik guttirat martxan izanen den plana lantzen ari direla ja-

kinarazi dute. Baztan Berri eremurako barteneko trafikoaren arauketa berria ere egin da eta martxoaren 7tik aitzinera indarrean dago.

UPN guzti honetan erakusten ari den «axo-

lagabekeria» ere salatu dute udal gobernu taldeko kideek, «eztabaida konplikatua honetan zentzuz aritu eta lagundu beharrean etekin politikoaren bila bertzerik ez baita ari».

**LIZUN**  
GAZTANDEGIA  
Sunbilla - Tel: 948 450 862

**Pierresenea**  
OSTATU - JATETXEA  
Jaki tipikoak - Etxeko giroa  
Hurriotz auzoa - Tfnoa: 948 592 043  
ORNOZ - MUGAIRI


**LARRALDEA**  
eta  
**LINDURRENBORDA**  
Baztan Bidasoako sagardotegiak  
Dolarea  
Txotx denboraldia irekia  
Eskualdean egindako sagardoa  
LARRALDEA | Telleria auzoa - LEKARÓZ | 948 452121 - 626 494317  
LINDURRENBORDA | Nabaz auzoa - LESAKA | 948 637212

Egin zaitez  
**ttipi-ttapa**ren  
harpidedun  
ttipi-ttapa  
(0034) 948 63 54 58

# Langabeziatik irten eta ekintzaile izateko pausoa

Azken aldia langabezia datuek nabarmen egin dute gora. Zifra ilun horietatik aldendu nahian, asko dira beraien enpresa sortzea burutan darabiltenak. Aldez aurretiko esperientzia, *hobbyren* bat, ezagutza... oinarrian hartu eta pausoa ematen dute. Auto-enplegua langabeziatik irteteko modua da. Pertsona horiek ez dute pausoa bakarrik ematen. **Cederna-Garalurrek**, Nafarroako Mendialdeko garapen elkarteak, laguntza eskaintzen baitie ekintzaile izan nahi duten pertsonari. **Anima zaitetz!**

## Gustabo Aldako Muñoz



**Aurreko lanbidea:** Eraikuntzako langilea  
**Adina:** 28 urte  
**Auto-enplegua:** Elizondan Aldako Lan enpresa sortzen ari da, Eraikuntzako Lan Bertikalak eskainiko ditu.

**Zerk bultzatu zintuen pauso hau ematera?** Eraikuntza enpresa batean egiten nuen lan eta egoera beltza zela ikusi nuen. Beti izan dut argi langabezia geldituko banint ez nintzela aukeren zain geldirik egonen. Enpresa propioa sortu eta nire bidea egitea erabaki nuen.

**Nola sortu zitzaizun zehazki enpresa horren ideia?**

Ez nuen lanbidez aldatu nahi. Hamar urteko esperientzia dut lan horretan eta sektorea ongi ezagutzen dut. Bezeroen beharrei erantzungo dien eskaintza ematea da nire helburua. Izan ere, merkeagoa da bezeroentzat lan bertikalak kontratatzea sistema tradizionala baino. Eskaladan aritzeko zaletasuna ere badut eta badu nolabaiteko lotura. Azkenean, aurretiko esperientzia eta zaletasuna uzartuko ditut lanbide berrian.

**Enpresa sortzeko zein pauso eman dituzu?**

Formakuntza ikastaroak egin nituen lehengo. Horretan ari nitzela, lagun batek Cederna Garalurren berri eman zidan. Beraingana jo eta Cederna-Garalurren laguntzarekin nire ideia garatzen joan naiz. Diru laguntzekin, administrazio kontuekin aunitz lagundu didate. Une honetan enpresa plana lantzen ari gara. Uda-berri alderako enpresa martxan egotea da nire helburua.

**Zein aholku emanen zenioke langabezia dagoenari?**

Ausart daitezela erranen nieke. Ideia bat baztertu aurretik ahalegina egin behar dela uste dut. Ez badut nire helburua lortzen, beti dago hutsetik hasteko aukera.

## Javier Jaurena Mezquiriz



**Aurreko lanbidea:** Eraikuntzako langilea  
**Adina:** 51 urte  
**Auto-enplegua:** Leitzako estankoarean ardura bere gain hartu du.

**Zerk bultzatu zintuen pauso hau ematera?**

Lantoki batean eta obretan aritu izan naiz lanean, baina azken urte eta erdian ez nuen inon lanik topatzen. Eratsun inguruan eta sektore horietan ez zegoen lan eskaintzarik. Ustekabean jakin nuen Leitzako estankoarean jabeak erretiroa hartzen zuela eta norbaiten bila ari zirela. Orduan, lizentzia hori eskuratzeko zerrendan izena ematea erabaki nuen, saiakera egitea.

**Nola izan da prozesua?**

Jende aunitz aurkeztu ginen eta zerrenda horretan, Leitzako jendea ere apuntatua zegoen. Herritarrei lehentasuna emanen zietela uste nuen... Horregatik, ez nuen aukera baztertu baina ez nuen esperantza haundiegirik ere egin. Azkenean zortea aldeko izan eta niri eman zidaten baimena.

**Cederna-Garalurrek zertan lagundu zaitu?**

Hasierako horretan oso baliagarria izan da beraien laguntza. Baimen ugari behar dira eta nik ez nekien nora jo behar zen. Leitzako udalean, Madril... eskatu beharreko guztiak prestatzen lagundu didate. Orain, Madrilgo baimenaren esperoan gaude aitzinera egiteko.

**Lanbide aldaketa handia da zure kasuan...**

Hala da, ez dut ohiturarik dendan aritzeko, baina saiatu egin behar da. Errespetu apur bat ematen du, baina ilusio handia dut. Orain bertan daukadan ikara handiena baimena emanen ote didaten da. Lokal berri bat hartu dugu errentan eta behin baimena lortuta, lanean hasi eta etorkizunak zer dakarren ikusi beharko da.

## Angela Irisarri Elizagoyen



**Aurreko lanbideak:** Ahate granja batean eta Informatika zerbitzuetan.  
**Adina:** 41 urte  
**Auto-enplegua:** Landako oilo arrautzen haztegia jarriko du Etxalarren.

**Zerk bultzatu zintuen pauso hau ematera?**

Lana niretzako egiteak, nire nagusia ni izateak bultzatu nau pausoa ematera. Biak probatu ditut, niretzat eta baita besteentzat lan egitea ere. Autonomo izanda, arazoak nireak dira, baina askatasuna ere bai. Bi haur ditut eta horrek lana eta amatasuna bateratzeko aukera ematen dit. Inplikazioa eskatzen du baina, abantailak handiak dira. Gustuko duzun horretan lan egiteko aukera ematen baitu.

**Nola sortu zitzaizun zehazki enpresa horren ideia?**

Nire abiapuntua aurretiko esperientzia izan da. Ahate haztegi bat eduki nuen duela urte batzuk eta oiloekin lan egiteko ideia nuen aspalditik. Arrautzak erosiko zituen eroslea topatu genuen eta orduan, duela hiru urte paper guztiak martxan jartzen hasi ginen. Orain baimen guztiak dauzkate eta finantziarioa prestatzen ari naiz. Hori lortutakoan haztegia eraikitzen hasiko gara. Datorren ikasterterako martxan izatea nahi nuke.

**Zein paper izan du prozesu honetan Cederna-Garalurrek?**

Eroslea topatu genuenean, Cederna -Garalurrera joan ginen zalantzak argitzera. Egin beharreko pauso guztiak esan zizkidaten berriek. Antolatutako ikastaroak ere egin ditut. Bertalde, ekintzaileen kedadan ere parte hartu nuen. Askari interesgarriak dira guztiak eta bide berriak irekitzen laguntzen digute. Enpresa munduan sartzen zara, antzeko egoeran daudenekin egon eta beraien esperientziak entzuten dituzu. Une horietan beharrezko laguntza eta babesa ematen dizute.

## GARAPEN AGENTEAK

**Arantxa Arregi**, 606 43 13 57 / [bidaso@cederna.es](mailto:bidaso@cederna.es) • **Izaskun Abril**, 606 40 86 13 / [baztan@cederna.es](mailto:baztan@cederna.es) • **Elena Irigoien**, 617 60 93 28 [lekunberri@cederna.es](mailto:lekunberri@cederna.es)  
**Cederna Garalur** Alkaiaga Industrialdea, Alasta 2B • Orduetgia: 09:00 / 16:00 • 948 62 51 22 • [bidaso.admon@cederna.es](mailto:bidaso.admon@cederna.es)



Fondo Europeo de Desarrollo Rural, Europa invierte en zonas rurales / Landa Garapenerako europako nekazaritza funtsa, Europa landa eremuetan inbertitzen  
LDP 2007-2013 LEADER (Plan de ayudas, programas formativos, Europa Berruzarriren Inbertiziorik (R. 5)), Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsaren (LEADER) berrak

# ZUGARRAMURDI

KIROLA → MARTXO HONDAR ARTE APUNTA DAITEKE

## Binazkako pala txapelketa mistoa antolatu dute

Bereziki neskak animatzea nahi dute antolatzaileek

### Margari eta Koro

Binazkako pilota pala txapelketa bat antolatu da. Txapelketa mistoa da, baina bereziki neskak animatzea nahi dute antolatzaileek, gan den urtean arras neska guttik parte hartu baitzuten.

Izenak banaka eman behar dire, eta antolatzaileek eginen dituzte bikoteak. Marixan ostuan eman behar da izena, eta martxoaren hondar arte da epea.

### Korrika badator

Bi urte pasatu dire, eta hemen dugu berriz

ere Korrika. Kilometroa erosteko tokia Marixan ostatua da.

Gure zonaldeetik hurbilen Sara aldetik pasatuko da, martxoaren 16ko gauean (goizeko 3:30ak aldera). Larunbatetik iganderako gaua da, berez, errexago izanen da erne irautea.

Eskuarak irautea nahi badugu, gure laguntza behar da. Beraz, animatu diru ematera eta lasterka egitera.

### Mus txapelketa eskualdeko komunikabideen alde

Gan den urtean bezala aurten ere eskualde komunikabideen aldeko mus txapelketa antolatu da. Zugarramurdin martxoaren 23an (la-



ARGAZKIAK: JON MARTINEZ

### Ehunka lagun ibili zen Lezeen Egunean

Laugarren urtez, Euskal Herriko Lezeen Eguna ospatu zen martxoaren 3an, Luiberri elkarteko zortzi lezeetan. Nafarroako Zugarramurdi, Ikaburu (Urdazubi) eta Mendukilo (Astiz); Lapurdiko Sara, Gipuzkoako Arrikruz (Oñati) eta Ekainberri (Zestoa), eta Bizkaiko Pozalagua eta Kobenkoba (Karrantza) lezeetan. Eguraldi zoragarriak eta prezio bereziek lagundurik 440 lagun sartu ziren gure herriko lezeetan. Egun horretan, lezeko txartelak erdi prezioan egon ziren eta sartu zirenek, Zestoako landetxe batean asteburu bat pasatzeko zozketa batean parte hartu zuten. Gainera egun berezi horretarako ekitaldi berezi bat antolatu zen: sorgin batek lagundurik herritik barnako bixita bat. Honetan ehun pertsona inguruk parte hartu zuten, eguerdikoan euskaraz eta arratsaldekoan gazteleraz.

runbata) eginen da, arratsaldeko 4etan Azketan.

Hemen ere gauza bera. Ttiipi-Ttapa irakurtzen edo Xorroxin adi-

tzen segitu nahi badugu, lagundu behar ditugu, eta hau da manera errea eta dibertigarria. Beraz, animatu eta txapelketan parte hartu.

### URDAZUBI

Komunikabideen aldeko mus txapelketa hilaren 23an

### TTIPI-TTAPA

Xorroxin, Xalao eta Ttiipi-Ttaparen aldeko mus txapelketa martxoaren 23an, larunbat gaueko 9:30ean jokatuko da Gaudiñara elkartean. Irabazleek, Sunbillan jokatuko den final nagusirako txartelaz gain, bildotsa eramanen dute sarritaz. Bigarren saria botel bana ardo izanen da. Apuntatzeko epea martxoaren 22a bitartekoa izanen da, Montxo, Anastaxi eta Ansalas ostatuetan. Bikote bakoitzak 20 euro ordaindu beharko du.

**okaNe**  
HARATEGIA / URDAITEGIA  
Jose Luis & Cora  
Karrilondorri 12 • BERA  
Tfno/Fax: 948 630 018

**MARTIKO**  
Martiko  
Pol Zalaia, s/n.  
31780 Bera, Nafarroa  
Tel: 948 625018 Fax: 948 625036  
www.martiko.com  
Habitatzen dituen eta ornatzen

**DENDA ORDUTEGIA:**  
astelehenetik ortziralera  
08:00etatik 17:00etara

**"LEKAS" LUDOTEKA**  
LEKAROKO ATERPEA  
Haur hezkuntzan espezializatutako langilearekin  
3 ETA 9 URTE BITARTEKO LIMELI ZUZENDLIA  
Ordutegia:  
Astelehenetik ortziralera 17:00etatik 20:30etara  
Larunbatak 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:30etara  
**IREKIERA EGUNA: Apirilak 2**  
17:00etatik 20:30etara  
Apirilak 2, 3, 4 eta 5ean SARRERA DOAN Ludoteka ezagutzeko



GIZARTEA → SEASKAREN ALDE

## Kanboko Xalbador ikastegiaren haunditzearen ordaintzea da aurtengo Herri Urratsen helburua

**Franck DOLOSOR**

“Hogeita abar urte” lelopean Ipar Euskal Herriko ikastolen aldeko besta erraldoia ospatuko da Senpereko aintziran maiatzaren 12an. Hitz joko hunekin antolatzaileek erakutsi nahi dute hogoita hamargarren bestak segida biziki luzea izan beharko duela oraino ikastolen beharrak gero eta haundiagoak baitira. Gaurko egunean, 3 eta 18 urte arteko 3.000 ikasle pasa dabilta Seaskaren 30 ikastoletan eta kopuruak azkarki haunditzen dira urtez urte. Aurtengo irabaziekin Kanboko Xalbador ikastegiko berritze eta haunditze lanen parte bat ordainduko dute. Ondoko egunetan, Seaskako ordezkariak Frantziako ordezkariak Baionan duen ordezkariarekin bilduko dira geroaz mintzatzeko. Gogoan izan, berriki gobernu ordezkariak erran zuela

Iparraldeko herriko etxe-ekin ezin zituztela ikastolak diruz lagundu eskola pribatuak direlakoan. Hendaiaiko herriko etxeari mehatxu egin zion estatuaren diru laguntzak kentzea itsas bazterreko hiri hunek euskarazko eskola berria eraikitzen baldin bazuen. Seaskak lege berria nahi du egoera behingoz finkatzeko eta etorkizuna bermatzeko. Izan ere, Iparraldeko ikastolen %90ak diru laguntza publikoak jasotzen dituzte.

Bertzalde, Seaskako lagunak Eusko Jaurlaritza berriarekin bilduko dira laster jakiteko 2013an zoin laguntza eskuratzen ahalko duten. Seaskak salatu du aintzineko gobernuak, Patxi Lopez sozialistarena, joan dela hitzajan eta. Hitz emana zuen 400.000 euroko laguntza eman gabe joan da PSE-EEren gobernuak Seaskaren erranetan.



ARGAZKIA: FRANCK DOLOSOR

Herri Urrats eta Seaskako arduradunek aurtengo bestaren leloaren eta helburuen berri eman dute berriki Baionan.



ARGAZKIA: FRANCK DOLOSOR

### Senpertarrak Frantziako baserrikeri handienean

Frantziako baserri haundienak, Pariseko laborantza saloinak, 700 000 bisitari hartu ditu aurtun ere, horien artean senpertarrak. Ustezko haragi iruzurra den ahotan izan da bainan halere besta ederra egiteko eta Parise bisitatzeko parada izan dute harat joan direnek. Aurtun ere euskal ekoizleek dominak irabazi dituzte, hauen artean Baigorriko Petrikorena etxeak.



ARGAZKIA: FRANCK DOLOSOR

### Euriak eta hotzak ez dute ihauterietan lagundu

Etkez etxe ibiltzeko eta xingar eta arrotze galdetzeko denboraldia joan zaigu. Aurtengo ihauteriek ez dute erdietsi merezi zuten arrakasta euriak eta hotzak ez baitute batere lagundu. Halere bildu zirenek giro goxoaz gozatu ahal izan zuten, hauen artean Zirikatuz euskal dantza taldeko kide hauek.



## SARA

GIZARTEA → AEK-REN ALDE

# Martxoaren 17an ailegatuko da Korrika herrira

Lasterkaldia itzaroteko antzerkia eta kontzertuak antolatu dituzte ikastolak eta gaztetxeak

**Joana GUERENDIAIN**

Korrika, helduen eus-kalduntze eta alfabetatzean ari den AEKren aldeko lasterketa, Saratik pasako da martxoaren 17an goizeko 4etan. Honen kariatara Sarako Olhain Ikastolak eta Gaztetxeak antzerki bat eta kontzertuak antolatu dituzte martxoaren 16an. Antzerkian, Jostakin talde makearrak

Mattin Irigoienen "Debriren bisaia" emanen du; laborantzari buruzko antzerki bat da. Antzerkia polikiroldegian egingen da, gaueko 9etan eta sartzea 8 eurotan da.

Ondotik korrika itzaroteko gaztetxea idekiko da eta goizeko 4etan denak lasterka egitera!

## T gaua eskubaloi taldearen eskutik

Martxoaren 16an beti Sarako urtxintxa eskubaloi elkarteak gaualdi mozorrotu bat antolatzen du, gaia T letra, Lur Berri gelan gaueko 7:30etik goiti. Bertan jatekoa erosteko aukera izanen da boloñesa edo karbonara pas-



ARGAZKIA: KATTIN BERGARA

Aurten igande goizaldean pasatuko da Korrika Saratik.

tak, 3 eurotan platera, gero ostatu bat izanen da eta gaua DJ Denisk naimatuko du. Anima zaitezte!

## Saratarrak Argentinan

Martxoaren 23an, larunbat gauarekin, Lur Berri gelan, *Saratarrak Argentinan* mintzaldia eskainiko da. Mintzaldia gaueko 8:30ean hasiko da, eta sartzea urrik.

## Pastiza

San Josepe eskolak pastiza salmenta bat antolatzen du bi egunez egingen da. Martxoaren 23ean, larunbata, arratsaldeko 5etatik 7:30 arte eta 24an, igande goiza, 8etatik 1ak arte.

## Sara Trail

Heldu den martxoaren 24 ean Sara korrikak bere trail-a antolatu du. Mendiko lasterketa honek 25km-ko luzera du, abiatzea frontoietik egiten da goi-

zako 9etan. Xehetasun gehiagorentzat deitzen ahal duzue zenbaki honetara : 05.59.54.20.14

## Kirol emaitzak

Urtxintxak otsailaren 22 an Madiranen kontra aritu dira, galdu egin dute 23-12. Martxoaren 2an etxean jokatu dute Lucq de Béarn-eko taldearen kontra eta garaipen polita lortu dute 18-8, matxa eder bat egin eta.

**EDARIAK**

**MANUEL TABERNA S.L.**

Bidasoa, 76 - 31780 BERA (Nafarroa)  
Tel. Fax: 948 63 10 27

**ANZABAL INMOBILIARIA**

- Zuzirik Aseguruak
- Auzo, etxebizitza, istripu eta bizitza aseguruak
- Lan aholkularitza
- Nomina eta Aseguru Sozialak
- Aholkularitza fiskala
- Errenta Deklarazioa, IRZa...
- Inmobiliaria
- Baserri, borda, pisu, etab... salmenta eta alikaritas
- Gestoria




Santiago, 15 • ELIZONDO • T./F. 948 580 804  
anzabal@anzabal.com • www.anzabal.com

**ttipi-ttapa**

948 63 54 58  
kulturkari@ttipi.net

Kartelak, fakturak, kartazalak, bisita txartelak, egutegiak...

**inprimitzen ditugu**



## EZKONTZAK

**Txomin Zubilaga Uranga** eta **Ane Urreta Sanz**, Areso eta Billabonakoa, martxoaren 9an Areson.  
**Bixente Garcia** eta **Ttoni Basurco**, Sarakoak, otsailaren 23an.

*Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.*

## SORTZEAK

**Ekhi Sagastibeltza Uriarte**, Leitzakoa, otsailaren 15ean.  
**Miren Iantzi Charles**, Lesakakoa, otsailaren 17an.  
**Oier Zabala Juantorena**, Goizuetakoa, otsailaren 24an.  
**Luken Elizegi Salaberria**, Goizuetakoa, otsailaren 28an.  
**Odei Lavigne Arruebarrena**, Sarakoa, otsailaren 18an.  
**Charli Talabot Massé**, Sarakoa, otsailaren 18an.  
**Xoan Gomez Alduntzin**, Leitzakoa, otsailaren 27an.

*Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.*

## HERIOTZAK

**Eduardo Etxeberria Aramendi**, Lesakakoa, otsailaren 21ean, 68 urte.  
**Pedro Sagardia Erleta**, Gaztelukoa, otsailaren 22an, 94 urte.  
**Jabier Tomasena Salaberria**, Goizuetakoa, otsailaren 22an, 79 urte.  
**Mari Carmen Fagoaga Gallaga**, Iruiritakoa, otsailaren 22an, 91 urte.  
**Sebastian Gainza Aldazabal**, Bera-  
koa, otsailaren 26an, 82 urte.  
**Felisa Ibarrola Karrika**, Urdazubikoa, otsailaren 27an, 71 urte.  
**Carmen Ordoki Biurarena**, Arantzakoa, otsailaren 27an, 90 urte.  
**Juan Indakoetxea Telletxea**, Arantzakoa, otsailaren 28an, 91 urte.  
**Fermina Bergara Zubiri**, Leitzakoa, martxoaren 3an, 97 urte.  
**Gillermina Mitxelena Agerrebere**, Amaiurkoa, martxoaren 3an, 90 urte.  
**Maritxu Apezetxea Arribillaga**, Leitzakoa, martxoaren 4an, 82 urte.  
**Clara Arraztoa Mendikoa**, Elizondokoa, martxoaren 5ean, 80 urte.  
**Francisca Urdaniz Mitxelena**, Iruiritakoa, martxoaren 5ean, 88 urte.  
**Catherine Larria-Aire**, Sarakoa, otsailaren 24an, 85 urte.




### Fermin BEOLA AGESTA

Etxalar, 1947.12.21-2013.02.08

*Urte aunitz bizitu zara bakardadean eta heriotzarekin topo egin duzu zure bidean.*

*baina hemendik aitzinera etzara bakarrik egongo, baizik atta eta amaren ondoan, goiko zeru zabalean.*

**ETXEKOAK**



*Erraxa izan da zu maitatzea, eta ezinezkoa zu ahanzte. Betirako gure bihotzean.*

**TXIRRINDULARITZA** → HELMUGA PIEDADEKO GAINEN IZANEN DU ETA LESAKAKO NABAZ IGOKO DU AURTEN ERE

# Bidasoaldeko II. Saria antolatuko du Igantziko Biltokik maiatzaren 25ean

Nafarroako elite eta sub-23 mailetako errepideko txapelketa ere proba horretan erabakiko da

## TTIPI-TTAPA

Euskadiko Txirrindularitza Federazioak antolatzen dituen lasterketen baitan sartuko da aurtan ere Bidasoaldeko Saria. 2011. urtean antolatu zuen lehen aldiz Igantziko Biltokiko txirrindularitza atalak eta aurtan ere Biltoki izanen da antolatzaile. Elkarre honen asmoa eskualdeko talde ezberdinen artean txandaka antolatzea da, baina 2012ko edizioa arrazoi ezberdengatik ez zen egin, nahiz eta Gure Txoko-



ARTXIBOKO ARGAZKIA  
Txirrindulariak Nabazera igotzen 2011ko Bidasoaldeko Sarian.

ak egutegian sartua izan.

Aurtengo edizioak duela bi urtekoaren ibilbide beretsua izanen du. Bi aldiz pasatuko da Piedadeko gainetik eta hain gogoko izan zen Nabazko igoera polit eta gogorra ere sartu dute ibilbidean. Kilometrajearak

handitzeko, Beran Lizu-niagi aldera zerbait luzatzea ere aztertzen ari dira. Izan ere, 2011ko lasterketa 105 kilometrokoa zen, Lehendakari txapelketako Sub-23 kategoriako lasterketa baterako aski, baina aurtan elite kategoriako txirrindulariak ere at-

rako dira, beraz Euskaldun txapelketarako baliagarria izanen da eta horretarako 125-130 kilometroko ibilbidea prestatu beharko da.

## NAFARROAKO TXAPELKETA

Aldaketa honen arazoia zera da: Bidasoal-

deko Sari honek, Nafarroako errepideko txapelketa ere erabakiko duela. Beraz, elite eta sub-23 kategorietako lehenbiziko nafarrak, 2013ko Nafarroako errepideko txapelkun ere izanen dira.

Bidasoaldeko II. Saria maiatzaren 25ean abiatuko da, larunbat arratsaldeko 3:30ean eta Nafarroako Itzulia-ren aitzineko astean denez, maila handiko parte hartze zabala espero da. Proba antolatze-ko bilerak egiten ari da Biltoki eta abudo ibilbideko herrietako zaleekin harremanean jarriko da, segurtasun arloko gaiak lotzeko. Probaren aurrekontua 5.000 euro ingurukoa da eta hori estaltzeko udal erakunde, babesle eta Nafarroako Gobernuaren espero dute.

**TXIRRINDULARITZA** → BETERANOAK

## Ibon Urtiagak Nafarroako erlojupeko txapelketa irabazi du

Ion Zeberio eta Luziano Mitxelena ere txapelkun izan dira bere kategorietan

## TTIPI-TTAAOA

Otsaileko azken asteburuan Nafarroako Erreinuko Itzulia jokatu

zen Erribera aldean, hiru etapa bi egunetan, Los Arcos, Fitero eta Milagron. TransBidasoa-Euromaster taldeko sei txirrindulari gerturatu ziren, Mikel Arburua, Riki Martínez, Luziano Mitxelena, Ion Zeberio eta Jabi eta Ibon Urtiaga anaiak. Lehen etapa Los Arcosen, 4 kilometroko erlojupekoa, espezialitate honetako Na-



UTZITAKO ARGAZKIA

Ibon Urtiaga, Nafarroako erlojupeko txapelkunaren maillotarekin, taldekideez inguratua.

farroako txapelketa zen; Beteluko Ibon Urtiagak 4. postu bikaina eskuratu zuen Espainia mailako master mailako txirrindularien aurka eta

Nafarroako txapelketa irabaztea lortu zuen; Luziano Mitxelena lesakarrak eta Ion Zeberio elizondarrak ere euren mailetan txapela lortu

zuten. Beraien mailetan parte hartzaile gutti izan arren, bere lana ederki bete zuten TransBidasoa-Euromasterko taldekideek.

PILOTA → MALERREKAKO ESUZ BINAKAKO HAMEKAGARREN PILOTA TXAPELKETAKO FINALAK

# Hernaniko Esnal eta Errekako Gorriti nagusitu dira elite mailako finalean

Otsailaren 23an, goiz eta arratsaldean jokatu ziren zazpi kategorietako finalak

## TTIPI-TTAPA

Erreka elkarreak antolatutako Malerrekako eskuz binakako hamekagarren pilota txapelketako finalak jokatu ziren otsailaren 23an Doneztebeko udal pilotalekuan. 500 bat lagun pasatu ziren egunean zehar pilotalekutik eta giro ederra izan zen.

Goizean ttikiaren txanda izan zen Benjamin mailan, Ilunpeko Egiguren eta Elosegik 18 eta 6 irabazi zieten Ziotzako Perurena eta Ugartemendiari.

Alebinetan, Obere-nako Oskoz eta Cuairanek ere 18-6 irabazi zieten Ilunpeko Unanue eta Alberdiri.

Infantiletan, Errekako Iker Salaberria goizuetarrak eta Mariezku rrenak 18 eta 11 irabazi zieten Lapkeko Zubizarreta eta Ilunpeko Alberdiri.

Behin goizeko partidak akituta, ohitura onak ez galtzeko, bazkaria izan zuten antolatzaile, partehartzaile eta laguntzaileek Santamaria jatetxean. Bazkalondan, jokatu ziren gainerako finalak.

Kadete mailan, Donibaneko Petite eta Eskuderok 18 eta 9 irabazi zieten Markinako Arri-



ARGAZKIA: JUAN MARI ONDIKOL

Malerrekako eskuz binakako pilota txapelketako finaletan parte hartu zuten pilotariak ageri dira goitian. 500 ikusle elkar-tu ziren Doneztebeko frontoian otsailaren 23an finalak ikustera. Elite mailakoan, Hernaniko Esnal beteranoa eta Errekako Gorriti nagusitu ziren. Miguel San Miguel Doneztebeko alkateak eta Oskar Mindegia kirol zinegotziak eman zizkieten txapelak eta kopak.

zabalaga eta Urizarri.

Eskualdeko pilotari-en ordezkariarik zabalena jubenil mailako finalean izan zen Bera-ko Gure Txokoako Ander Errandonea eta Iñigo Martinezek 22 eta 11 irabazi zieten Lesakako Arkupeko Jon Olaizola eta Oberenako Goñiri.

22 urtez behetiko kategorian, Amurriko Goi-koleak eta Oiarpeko Ander Imazek 22 eta 18 irabazi zieten Oiarpeko Ugalde II eta Ugalde I.ari.

Elite mailako finalean, azkenik, Hernaniko

## DATUA

# 176

## BIKOTE

aritu dira aurten Errekak antolatutako XI. eskuz binakako pilota txapelketan

Esnal eta Errekako Gorritik 22 eta 13 irabazi zieten Tolosako Pilota Aniztasuna taldeko Bellosori eta Oberenako Etxamendiari. Gisa ho-

netara, Esnalek bere bigarren txapela jantzi zuten eta Malerrekako txapelketa irabazi duen pilotari beteranoa da, martxoaren 15ean 39 urte eginen baititu. Final nagusia berdindua joan zen hasieran eta 8-9 irabazten izan ziren Belloso eta Etxamendi, baina 9-0ko partzialarekin aldegin zuten txapelak eta hortik aitzinera erraz nagusitu ziren.

Finalak akitu eta gero, luntx bikaina eskaini zuten, 30 bat patata tortilla, 5 kilo urdaiazpiko

eta txorizo, zortzi gazta eta bertze hainbat jaki banatu baitziren. Oho-rezko gonbidatuen artean, Montxo Iriarte Nafarroako Pilota Federazioko presidentea, Pedro Uriarte Euskadiko Federazioko idazkaria, Inaxio Errandonea Aspe enpresaren ordezkaria, Jesus Mari Rubio Antiguoko txapelketaren antolatzailea eta Miguel San Miguel alkatea eta Oskar Mindegia kirol zinegotzia, Doneztebeko udalaren izenean, hurbildu ziren frontoira.

## martxoak 14 - 28

Informazioa bidaltzeko: [info@ttipi.net](mailto:info@ttipi.net) edo 948 63 54 58

## Zinema



DONEZTEBE | 2013.03.15

**Emakumearen Eguneko zinema eta solasaldia**

*Mariposas en el hierro* dokumentala ikusteaz gain, Bertha Gaztelumendi zuzendariarekin eta filmeko elkarriketatueta batekin solasteko aukera.

## Bertsoak




IRURITA | 2013.03.15

**Ez Gara Palestinaz ari bertso saioa Gizarte Bilgunean**

Unai Muñoa eta Ander Lizarralderekin eskutik *Ez Gara Palestinaz ari* bertso saioa antolatu dute Irurita gazteek Damaso Zabalza Gizarte Bilgunean.

## Azokak



LESAKA | 2013.03.24

**Udaberriko Feria antolatu du Zerbitzuen Elkarteak**

Herriko 13 zerbitzuren eskaintzak ikusgai eta erosgai izanen dira aurten ere udal pilotalekuan, 10:00etatik 19:00etara. Sarrera doan izanen da.

19:30etik goiti Lur Berri gelan. Xehetasunak 42. orrian.

**Azokak**

LESAKA

**Udaberriko Feria**

**Martxoaren 24an** antolatu du Lesakako Zerbitzuen Elkarteak frontoian 10:00etatik 19:00etara. Xehetasunak 20. orrian.

**Antzerkiak**

IRURITA

**Helduendako bakarriketak**

**Martxoaren 17an** Oihulari Klown taldearen *Zai beti zai* ikusgai Damaso Zabalza Bilgunean 19:00etan.

ARIZKUN

**XVIII. mendeko sagardo aroa**

**Martxoaren 16an** XVIII. mendeko sagardo aroa kale antzerki herritarra 11:00etan Arizkungo Herriko Etxean. Kupel idekiera. Korrika Kulturalaren barnean.

ARANTZA

**CaixaEscena Topaketak Aterpen**

**Martxoaren 22tik 24ra** CaixaEscena gazte antzerki topaketak Aterpen. Xehetasunak 22. orrian.

**Solasaldiak**

BERA

**Bertze eredu energetiko bat**

**Martxoaren 21ean** Bertze eredu energetiko bat solasaldia eskainiko du Goiener: Energia berriztagarrien sorkuntza eta erosle kooperatibako Santi Ochoa de Eribek 18:00etan Beralandetan.

**Kontzertuak**

BERA

**Udaberriko kontzertua**

**Martxoaren 20an** Udaberriko Kontzertua eskainiko du Isidoro Fagoaga Musika Eskolak 17:30ean Kultur Etxean.

**Mus txapelketak**

ESKUALDEKO

**komunikabideen alde**

LESAKA

**Martxoaren 15ean** Arrano elkarteak (22:30). AMAIUR

**Martxoaren 16an** Gaztelu elkarteak (21:30). EZKURRA

**Martxoaren 16an** hostalan (22:00). ELIZONDO

**Martxoaren 16an** Fal-farak elkarteak (16:30). AURTITZ-ITUREN

**Martxoaren 16an** Aurtizko elkarteak (22:00). DONAMARIA

**Martxoaren 22an** Herriko Ostatuan (21:30). ZUBIETA

**Martxoaren 23an** Herriko Ostatuan (16:00). LEGASA

**Martxoaren 23an** Kattalin Aterpean (16:30). OIZ

**Martxoaren 23an** Oizko Posadan (21:00).

SALDIAS

**Martxoaren 23an** ostatuan (21:00). ELGORRIAGA

**Martxoaren 23an** Herriko Ostatuan (16:30). URDAZUBI

**Martxoaren 23an** Gauñaran (21:30).

**Ospakizunak**

ESKUALDEA

**Korrika badator**

**Martxoaren 17an** goizaldean sartuko da Saratik eta Artesiagatik aterako. Horren inguruan hainbat ekitaldi antolatu dituzte herriz herri.

taldi antolatu dituzte herriz herri.

ELIZONDO

**Kantu afaria BRTetxean**

**Martxoaren 16an** kantu afaria antolatu dute BRTetxean BRTk, Baztandarren Biltzarrak eta Fanfarremifa fanfarreak, Korrika Kulturalaren barnean.

SUNBILLA

**Malerrekako Eskola Ttikien Joku Topaketa**  
**Martxoaren 26n** Ma-

lerrekako eskola ttiki-en Joku Topaketa egingen da. Xehetasunak 25. orrian.

LEITZA

**Herrira Eguna**

**Martxoaren 16n** antolatu dute Herrira Eguna, egitarau zabalarekin. Xehetasunak 34. orrian.

SARA

**T gaua**

**Martxoaren 16n** antolatu du Urtxintxak eskubaloitza taldeak,

## PROPOSAMENA

ESKUALDEA

**Korrika 18 badator!**

Martxoaren 14an abiatuko da Andoaindik eta hilaren 24an ailegatuko a Korrikaren lekukoa Baionara. Tartean, Euskal Herriko hainbat bazter bixitatuko ditu, ttipi-ttapa. Eskualdera martxoaren 17an, igande goizaldean sartuko da Saratik eta Artesiagatik aterako da. Bigarren bixita ere egingen du hondar egunean, Senpere ukituz. Horren inguruko ekitaldiak ere prest daude.



## Lehiaketak

### BAZTAN

#### Lore Jokoetarako literatur lehiaketa

**Martxoaren 22a** baino lehen aurkeztu behar dira Lore Jokoetarako literatur lehiaketarako lanak Arizkunenean.

## Bertsolaritza

### IRURITA

#### Ez gara Palestinaz ari

**Martxoaren 15ean** Ander Lizarralde eta Unai Muñozaren *Ez gara Palestinaz ari* bertso saioa antolatu dute Iruritako gazteek Damas Zabalza Bilgunean 20:45ean. Sarre-ra 4 euro.

### ELIZONDO

#### Berto Korrika

**Martxoaren 15ean** euskaldun berriei egokitutako Berto Korrika bertso saioa eta bertso musikatuak 19:00etan Arizkunenean.

## Zinema

### DONEZTEBE

#### Zine emanaldia eta solasaldia

**Martxoaren 15ean** *Mariposas en el hierro* dokumentala ikusgai 19:30ean zinemaz. Ondotik, Bertha Gaztelumendi zuzendariarekin eta filmeko elkarrizketatuetako batekin, Tamara Muruetagoienarekin solasaldia. Sarrera: 3 euro. Antolatzailea: Malerreka Trukerreka.

### DONEZTEBE

#### Zinema denboraldia

**Martxoaren 24an** *Campanilla: El secreto de las hadas* filma ikusgai 16:30ean eta *Skyfall* 18:30ean, Guraso Elkartearen eskutik.

## ENTRETENIMENDURAKO GAIAK

### Liburua



Rita eta alkimistaren ametsa

MIKEL VALVERDE


Elkar, 2013

**R**ita Pragara doa, Txekiar Errepublikako hiriburura, Eguberrietako oporraldiko egun batzuk igarotzera. Han, osaba Daniel eta beste aditu batzuk hiriko gaztelua arakutzen eta alkimista baten egunerokoa bilatzen ari dira. Duela urte asko, erdi azti erdi kimikari horiek edozein gauza urre bihurtzeko formula bilatzen aritu ziren eginahalean. Eta, kondairaren arabera, Gatuso alkimistak aurkitu zuen azkenean formula hori, baina amaiera misteriotsua izan zuen...

Pragara joan da Rita, elezaharrak errealitatearekin bat egiten duten hirira.

Mikel Valverde idatzi eta ilustratu du hamar urte-tik goitiko irakurleei zuzendutako bere azken liburua.

### Musika




Aldaketa

BAD SOUND SYSTEM

Bonberenea Ekintzak, 2012

**E**uskal Herrian jamaikar kultura eta musika egiteko modua ulertu eta barneratu duen talderik bada, hori Bad Sound System talde irundarra da. Euskal Herriko hip hop eta reggae eszenaren aitzindari, musika estilo hauek maite dituenarentzat nahitaezko erreferente bilakatu dira ia 10 urtez egindako ibilbide luze bezain oparoan. Euren zuzeneko indartsuengatik famatuak, gutti dira gure herrialdean hirukote bilakaturako talde honek oraindik zapatu ez dituen eszenatokiak. Izan ere, kontaezinak dira orain arte eskainitako kontzertuak. Euskal Herrian ez ezik, Frantzia, Katalunia, Galizia, Andalusian... jotzeko aukera izan dute, Mexikon eta Japonian barna 2010 eta 2011n egindako birak ahan-tzi gabe. 2010ean Europako Reggae jaialdi garrantzitsuenetarikoa den Rototom Sunsplash-en ere parte hartu zuten. *Aldaketa* diskoan betiko indarrarekin hornitutako 12 kantu aurkituko ditu entzuleak, kontzientziak dantzan astintzeko prest.

### Internet



Euskal esaera eta esamolde jatorrak

ESAERAJATORRAK.COM

**E**zjakintasunagatik edo inguruko hizkuntzen eragina nabarmenega delako, maiz beste hizkuntza horietatik egiten dugu tira lokuzio, esaera edo atsotitzak erabiltzeko orduan. Bada, txoko honen helburua, bere izenak dioen bezala, hain ezagunak diren atsotiz edo lokuzio horiek euskara jatorrera ekartzea izango da, ahal den neurrian hizkuntza ezberdinetako ordainak eta adibideren bat edo berte emanaz. Honela, gaztelarako *En cuerpo y almaren* euskarazko ordaina *Zain eta muin* proposatzen du, baina baita *Oso eta bizi, su eta gar, jo eta ke, buru eta bihotz, buru-belarri* edo *gorputz eta arima* ere. Euskara xuxen erabiltzeko adibideak ikusteaz gain, wenbgunean sartzen denak *Gaurko Hitza* edo *Hitzapasa* jokoetan jolasteko aukera ere izanen du, baita bere jokoa sortzeko ere.

## ERRATZU

### Emakumearen Eguna

**Martxoaren 15ean** *Indomables* filma ikusgai izanen da 21:00etan lixutegian.

## Mendi ateraldiak

### BAZTAN

#### Baztango

#### Mendigoizaleak

**Martxoaren 17an** Belate-Ermiteko lepoa-Ermite-Algorrietako lepoa-Algorrieta-Errebelu-Hirumugeta-Gartzagako lepoa-Azkenatz-Arlutz-Belate ateraldia egingen dute Baztango Mendigoizaleak (Baztango XX Mendi Itzuliaren zati bat).

**Martxoaren 23an** Astigarragara ateraldia egingen dute Baztango Mendigoizaleak (07:00)

### ZUGARRAMURDI

#### Atxuria taldea

#### Martxoaren 24an

Santiago Bideko Iruña-Gares etapa egingen du Atxuria mendi taldeak.

### ETXALAR

#### Gau lana gogoratu

#### Martxoaren 23an

kontrabandoko bide eta istorio zaharrak gogoratzeko 3 orduko mendi ibilaldia egingen da, 20:30ean frontoitik abiatuta.

### GOIZUETA

#### Umore Ona elkartearen irteera

#### Martxoaren 23an

*Goizueta ezagutuz* hirugarren mendi irteera egingen da Umore Onarekin: Plaza-Itxor-txa-Bistalekuko borda-Ikatzola-Sanpedroko borda-Olatxoherria (09:00).

Gertaera guztiak ikusteko, begiratu: [www.ttipi.net](http://www.ttipi.net) (agenda)

**ETXEBIZITZAK**

salgai

**ORONOZ-MUGAIRI.**

Etxebizitza salgai, mobleztatua dago. Berogailua, igogailua eta trastelekuarekin. 16 milio pezeta/100.000 euro. ☎ 948 585036.

**ANZABAL**  
INMOBILIARIA**BAZTAN, BIDASOA, ULTZAMA eta IPARRALDEAN**

- Pisuak, apartamentuak, partzelak, baserriak, bordak, lokal komertzialak eta nabeak salgai.

**IPARRALDE eta BIDASOA alderdietan**

- Eskaintzagatik baserriak, bordak eta lurak behar ditugu.

**URDAZUBI**

- Etxe berri bat salgai, mobleztatua. 2000 m<sup>2</sup>ko lur sailarekin.

**DONEZTEBE**

- Aukera: 102 m<sup>2</sup>ko pisua salgai. Egoera oso onean dago. 3 logela, jangela, egongela, 2 komun, sukalde mobleztatua eta 17 m<sup>2</sup>ko trastelekua.

Tel. 948 580 804  
Faxa. 948 581 459  
anzabal@anzabal.com

**ERATSUN.** Hiru borda salgai, lur eremuarekin. ☎ 943 217817.

**BERA.** Pisua salgai Berako herriko plazatik hurbil. 3 logela, 2 bainugela, balkoia, terraza eta trastelekuarekin. ☎ 653 018955.

**ERRETERIA.** Bi logelako etxebizitza salgai, mobleztatua. Oso argi tsua, bi balkoi eder ditu, batek egongela eta logelak lotzen ditu. Kokapen paregabea, tren eta autobus geltokietatik hurbil. Deitu beldurrik gabe! ☎ 636 377376.

**NARBARTE.** Pisua salgai bere 60 m<sup>2</sup>ko bajera-rekin. 3 logela, sukalde, egongela, bainugela, trasteroa eta terraza eguzkitsua. Prezio negoziagarria: 20 milioi peze-

**MERKATU TTIKIA**

948 63 54 58

info@ttipi.net edo www.ttipi.net

SAIL HONETAN **IRAGARKIA** JARTZEKO **8€** ORDAINDU BEHAR DA **ARGAZKIAREKIN** JARRI NAHI IZANEZ GERO **10€** IRAGARKI BAKOITZEKO **GEHIENEZ 25 HITZ** ONARTUKO DIRA

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta INTERNETen hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako 3008 0080 56 0703304329 kontuan

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik

ta/120.000 euro. ☎ 671 953370.

**DONEZTEBE.** Bi logelako pisua salgai. Berogailua eta trasteleku haundiarekin. Prezioa: 105.000 euro. ☎ 943 246456.



**ORONOZ.** Etxebizitza salgai. Dena berria. 5 logela, 3 bainugela, egongela, sukalde, trastelekua, eta portxearekin. Prezioa: 200.000 euro. ☎ 677 072437.

**IGANTZI.** 70m<sup>2</sup>ko pisua salgai edo errentan ematen da erosteko aukerarekin. 2 logela, bainugela, kalefakzioa, balkoia eta garajea. Mobleztatua eta ikuspegi ederrak. ☎ 600 430988.

**LESAKA.** Etxebizitza salgai. 4 logela, bainugela,

egongela, sukalde eta terraza itxia. Gasarekin prezio hagitza ona. ☎ 677 356461/☎ 628 936991.

**IGANTZI.** 70 m<sup>2</sup>ko pisu berria salgai, 2 logela, bainugela, kalefakzioa, trastelekua eta marra garajea. Leku lasaia eta ikuspegi ederrak. Zatoz ikustera inongo konpromisorik gabe. Prezioa: 130.000 euro. ☎ 670 218613.

**ETXEBIZITZAK**  
errentan emateko

**LESAKA.** Bittiri kalean 90 metro<sup>2</sup>ko pisua errentan ematen da. Sukalde handia, egongela, 3 logela, komuna, trastelekua eta bi balkoi eder di-

tu. Bizitzera sartzeko prestatua dago. ☎ 636 11602/☎ 639 855284.

**ELIZONDO.** Etxebizitza errentan ematen da herriaren erdialdean. Guztia mobleztatua, berogailua, igogailua eta trastelekuarekin. 2 logela, bainugela, sukalde eta egongela. Oso argitsua. ☎ 948 637283.

**LESAKA.** 110 m<sup>2</sup>ko pisua errentan emateko edo salgai. Etxe osoak kanpora ematen du eta bi balkoi eder ditu. 3 logela, egongela, sukalde, komuna eta trasteleku handia. Mobleztatua eta berogailuarekin. ☎ 670 319380/☎ 607 769519.

**ELGORRIAGA.** Pisu mobleztatua eta berogailuarekin errentan ematen da. 3 logela, sukalde, komuna, egongela, balkoia eta trastelekua. ☎ 629 734263.

**IRUN.** Hiri erdian pisua

errentan emateko edo saltzeko. 3 logela, bainugela, sukalde, egongela handi bat eta terraza irekia. ☎ 677 356461.

**BERA.** Herri erdian pisua errentan ematen da. Hiru logela, sukalde, 2 komun eta egongela ditu. Dena ekipatua eta bizitzeko prest. Igogailua eta berogailua ere baditu. Balkoi ederra eta eguzkitsua. ☎ 679 760510.

**DONEZTEBE.** Zazpigerutze karrikan 110 m<sup>2</sup>ko pisua errentan ematen da. Sukalde eta egongela mobleztatuta ditu. 3 logela, 1 mobleztatuta, 2 bainugela, berogailua eta igogailuarekin. ☎ 615 756282.

**ETXEBIZITZAK**

errentan hartzeko

**LESAKA.** Emakumezko batek etxebizitza errentan hartuko luke, bi logelako nahikoa. Hilabetean 300-400 euro ordaintzeko prest. ☎ 646 502239.

**LANA**

eskariak

Sukaldeburu bezala esperientzia duen **sukaldariak** lanaldi osoan edo extra bezala lan egingo luke. ☎ 948 634010/☎ 667 858965.

**ELIZONDO.** Gizonezkoa baserri lanetarako eskaintzen da, esperientziaduna. ☎ 626 453893. Hostalaritzan lan egiteko gogoz, **sukaldean** zein **tabernan** esperientziadun mutil euskalduna. ☎ 622 208560.

**BASERRIA**

DATU ITURRIA: **NAFARROAKO GOBERNUA**  
(Otsailaren 22tik martxoaren 1era bitarteko prezioak)

**ZERRIKIA**

**Zerrikumea**  
(19 kilo): 54 € (+3,00)

**Zerri gizena**  
1,370 € kiloa. (+0,036)

**Zerramak:**  
0,870€ Kg/bizirik. (+0,04)

**BEHIKIA**

**Aretze gizenak:**  
**Idixkoak:** €/kg. Kanal

**Extra** 4,13  
**1.koa** 3,87  
**2.koa** 3,71

**Urruxak:** €/kg. Kanal  
**Extra** 4,34  
**1.koa** 4,06  
**2.koa** 3,92

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.

**Aretze tikiak**  
(15 egun ingurukoak):

**Aretze mestizoak:**  
urruxak 150,00  
idixkoak 210,00

**Aretze nabarrak:**

urruxak 130,00  
idixkoak 165,00  
**Zaldikoak:** €/k  
Sortuberriak: 3,00/3,10  
Zaldi-behorrak: 1,84/2,04  
**Bildotsak:** €/k  
6-8 kilokoak: 5,70/5,80  
8-10 kilokoak: 4,60/5,30



Etxeko gazteenei aste-buruetan **ingeleseko klaseak** emateko bere burua eskaintzen du unitbertsitatean ingeles ikasketetako bigarren mailan dagoen 19 urteko neska. Honetaz gain, uztailla eta abuztuaren umeak zaintzeko ere prest dago, interesatuek deitu **677 008290** zenbakira, arratsaldean deitzea eskertuko luke.

Arkitekturako ikaslea aste-buruetan DBH eta batxilergo mailako **klase partikularrak** emateko prest dago. **680 187344**

**DONEZTEBE.** Emakume euskalduna lanaldi osoan eskaintzen da, etxeko lanak, ostatuetan edo dendetan lan egiteko. **626 981768.**

**LANA**

**eskaintzak**

**ZUGARRAMURDI.**

Kattalin jatetxeak zerbitzari bat bilatzen du aste-buruetan eta udako hila-beetean lan egiteko. Frantsesa jakitea eta esperientzia izatea beharrezkoak dira. **948 599009/948 599146.**

**ANIMALIAK salerosketak**

**60 ardi latxa** salgai. **667 252373.**

**Border Collie** arrazako zakurkumea hartuko nuke. Arra. **618 779968.**

**Behi deretxoak** salgai. **948 610728.**

**Border Collie** arrazako bi txakurkume salgai. Arrak eta hiru kolorekoak dira. 100 euro. **626**

831890.

**Ahari muturgorria** salgai. **699 648538.**

**ANIMALIAK**

**oparitzeko**

3 hilabeteko **artzai txakurkumea** oparitzen da. **690 906004.**

**MOTORRAK**

**salgai**

**Aisan** markako **autoa** salgai. Egoera onean. 2500 euro. **690 050903**



**Nissan Almera Tino** 1.8 monobolumena salgai. 5atekoa. Gasolina. 2005 urtekoa. 65.000 km. Arras ongi zaindua. **628 572273.**

**ZERBITZUAK**

**denetarik**

**Diana Iniesta Psikologoa** kontsulta Erratzun, etxez etxe edo internet bidez. Interesatuek deitu **948453478**ra edo idatzi **dianainiesta@hotmail.com**

**Yoga ikastaroak** Beran. Zure burua ondo ezagutzeko ariketa desberdinezko: arnasketa, ariketa fisikoa, erlajazioa, meditazioa. 08:30-10:00/19:00-20:30. (astearte eta ortzegunetan). **627 395245.**

Emakume bat **euskara maila hobetu** eta **praktikatzeko** etxe batetara joanen litzateke. **618 417648**

**DENETARIK**

**salerosketak**

**ORONOZ.** Egurra xehe-tua salgai. Pagoa eta harritza. Etxera eramaten da. **676 242520.**



**SUNBILLA.** Su egurra salgai, lotean edo xehe-tua. **659 867287/699 461394.**

**Traktore orga** bat nahi nuke 18-21 zaldi ingurukoa. Pascuali edo Agria markakoa. Direkzio eta freno hidraulikoduna. **948 510242/644 226079.**



**PIRRITX, PORROTX** eta **MARIMOTOTX.** Apirilaren 13an Berako Eztegar pilotalekuan 17:00etan "Sentitu, pentsatu, ekin" emanaldia. Sarrerak 7 eurotan: Lesakan (Atxaspi),



**EZ GELDITU PNEUMATIKO ZAHARREKIN, GUK EROSIKO DIZKIZUGU!**

**10€<sup>2</sup>** GURPILENGATIK\* **20€<sup>4</sup>** GURPILENGATIK\*

**Galnera:**  
**-%50** bigarren pneumatiko berria + montajea eta ekulibratua doan\*


\* Eskaintza balagarria 2013-04-30 arte. Marka hauekin bali du: Goodyear- Michelin Dunlop- Continental Pirelli- Bridgestone

**ESKATU AURREKONTUA KONPROMISORIK GABE!**

**Talleres SANTESTEBAN, S.A.**  
Leizakoa errep. 801 Doneztebe | T. 948 450 282  
F. 948 450 857 | doneztebe@red.renault.es

Igantzin (La Villa), Beran (Purienea), Arantzán (Aterpe), Etxalarren (Herriko), Elizondón (Fantxi-ke), Sunbillan (Iturburu), Sara (Herriko Ostaturia) eta Donezteben (Kimetz).

Komedoreko egurrezko armairua eta zentruko mahaia salgai, biak oso egoera onean. 350 euro. **679 332358.**



**Pianoa** salgai. KAWAI markakoa. Oso gutxi erabilia. Leku faltagatik ken-

du nahi da. Prezio negoziagarria. **616 791043.**

Sukaldean edota saloian jartzeko **pinuzkoa mahaia** bere **lau aulkiekin** salgai. Prezio negoziagarria. **696 542056.**



**DENETARIK**

**galdu/aurkituak**

Doneztebeko inauterietan **gizonezko baten kazadora** aurkitu dut, galdu duenak dei dezala **626 312805** telefonora.

**ROSA BELZUNGI**  
**PSIKOANALISTA**  
Kontsultarako ezazu irudia  
**948 272011 (RUJA)**  
**948 580975**  
Jaime Urutia 42-2-D - ELIZONDO

**TXARTELAK**  
Kartulina berezia 400gr. + 2 alde koloretan + BEZa barne

**500 94€**  
bisita txartel

100 txartel **74€** 250 txartel **90€** 1000 txartel **116€**

**AURREZTU BULEGOKO materialean**

**ttipi-ttapa**  
Koskontako bidea 7, 1 | LESAKA  
948 635 458 | kulturkari@ttipi.net  
www.ttipi.net www.kulturkari.com

# urtebetetzeak

Argazki soila: 4€; bikoitza: 8€

Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,37€ko 13 edo 26 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 4 edo 8 €ko txeketa; 4) www.ttipi.net bitartez



Lakuntzako **LIDE SAN SEBASTIAN ARRAIZAK** 6 urte beteko ditu martxoaren 21ean. Mila-mila zorion, ongi pasa eguna eta berendu goxoa prestatu!



Zorionak **MAIALEN** eta **IRATI ORUBE URIA** ahizpei. Lehendabiziko urtea bete dute martxoaren 7an. Urte askoan familia guztiaren partetik eta bereziki Jone ahizparen partez.



**BORDABERRIKO NESKA TTIKIAK** urte bat beteko du martxoaren 14an. Aunitz urtez familia guzian partetik ta muxu haundi bat.



**ENAUT BABACEK** urtea beteko du martxoaren 21ean. Zorionak izaba-osabak, aitauxi-amatxi eta bereziki Luaia eta Egoien partez. Muxuak




**Etxalarko JULENE DANBORIENEA IBARRAK** martxoaren 19an 3 urte beteko ditu. Zorionak eta muxu haundi bat famili guziaren partetik!



**ELIZONDOKO IKER JUANICOTENA CALLEJAK** 3 urte bete ditu martxoaren 3an. Zorionak osabak, izaba eta bereziki amatxi, Oier, Laura, Julen eta osaba Fernandoren partetik. 3 muxu potoloak!



**GOIZUETAKO BENAT NARBARTE MAKAZAGA** gure pottokok urtea bete du martxoaren 6an. Zorionak, besarkada haundi bat eta musu pila pila familiarren partetik, batez ere bere arrebatxo Elaiaren partetik!



Zubietako **ENAUT BABACEK** urtea beteko du martxoaren 21ean. Muxu potolo bat Iruritzko amatxi, osaba-izaba eta lehengusuaren partetik.



**GORA EZKONBERRIAK!** Izan zoriontsuak bide berri honetan. Zorionak Aresoko kuadrilaren partez! Ongi pasa Bretaña aldean! Muxu!



**ARITZEK** 7 urte beteko ditu martxoaren 17an. Ongi pasa zure eguna bihurri! Zazpi muxu potolo zuretzako!



**ARITZ ARANBERRI GOIAK** 7 urte beteko ditu martxoaren 17an. Muxu pila bat familia guztiaren partez eta berendu goxoa prestatu!

## xorroxin, xaloa eta ttipi-ttapa ren aldeko mus txapelketa

milaka txeketa laguntzeko!!!

tokia	eguna	ordua
<b>BAZTAN</b>		
GARTZAIN (Fransesi)	martxoak 15	19:30
ALMANDOZ (Azeriako Ekartera)	martxoak 16	20:00
AMAIUR (Gaztelu Ekartera)	martxoak 16	21:30
ELIZONDO (Falfarnek Ekartera)	martxoak 16	18:30
ZIGA (Astaburu Ekartera)	martxoak 22	20:30
ERRATZU (Etxibertzeko Ekartera)	martxoak 28	21:30
ARIZKUN (Ekuatasuna Ekartera)	martxoak 30	21:00
<b>BORTZIRIAK</b>		
LESACA (Arriño Ekartera)	martxoak 15	22:30
<b>MALERREKA</b>		
AURTIZ-ITUREN (Aurtzio Ekartera)	martxoak 16	22:00
EZKURRIA (Hostalan)	martxoak 16	22:00
DONAMARIA (Herriko Ostalua)	martxoak 22	21:30
LEGASA (Kattalin Aterpea)	martxoak 23	16:30
OITZ (Oierko Posada)	martxoak 23	21:00
SALDIAS (Ostalua)	martxoak 23	21:00
ELGORRIAGA (Herriko Ostalua)	martxoak 23	16:30
ZUBIETA (Herriko Ostalua)	martxoak 23	16:00
<b>XARETA</b>		
URDAZUBI (Gauñeira Ekartera)	martxoak 23	21:30
ZUGARRAMURDI (Akelamu Ekartera)	martxoak 23	



**IKER ITURBURUA** eta **ENAITZ VICONDOK** urteak beteko dituzte martxoaren 11 eta 18an. Zorionak Haritz eta Naroaren partez. Muxuak!




**LEITZAKO EGOI BIDARTEK ZABALETAK** 4 urte beteko ditu martxoaren 16an. Zorionak artista!!! Muxu haundi-haundi bat Eñaut, aitauxi eta amatxoren partetik. Aupa txapeldu!



**JULEN LUJANBIO ENETERREAGAK** 2 urte egingo ditu martxoaren 15ean. Zorionak Goizueta eta Lesakatik. Muxuak!



**IRURITAKO SAIOA** eta **TXOMIN PEROTXENA** osaba-ilobek martxoaren 16an eta apirilaren 2an 5 eta 37 urte beteko dituzte. Aunitz urtez famili guztiaren partetik! Muxu aunitz!



Zorionak **JON** (Foralen partetik) Non pagatu behar diak afaria? Ongi pasa urtebetetzea.



**XUBAN ZELAIETA INDKAOKETXA** txapeldu eta **PABLO IRAZOKI OLAIZOLA** txapelduorde gelditu ziren otsailaren 22an Malerrekako lau t erdiko banakako hamekagarran pilota txapelketako Benjamin C2 mailan. Zorionak aunitz! Sunbilda hauei eta segi horrela.




Zubietako **LANDERREK** martxoaren 9an 5 urte potolo bete ditu. Zorion goxo-goxoak zuretzat Jone eta amatxoren partetik. Bost muxu ernaldoi eteko gixonarentzat. Muak!!!!



Zubietako **LANDER INDKAOKETXA ZUBIALDEK** martxoaren 9an 5 urte bete ditu. Mila kilo zorion eta muxu Xune, Mirari, Jone, Unai eta Aimarren partetik, baita attona-amatxi eta osaba izenen partetik ere. Ongi pasa eguna!!!



Martxoaren 21ean **ENAUT BABACE SALABURUK** urtea beteko du. Muxu haundi bat atxa eta amaren partetik.



Aunitz urtez **HIRUKOTEI** Zuek ere bazoazte aldapan gora... Atzenduko ginelakoan? Ekarriko dituzuen gosari goxoetan pentsatuta, nola ba! Ongi pasa eguna!

### FINALA

Apirilaren 6an, 16:00etan  
Sunbillaiko Ulibeltzak elkartean

Antzezlea: TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA XORROXIN IRRATIA XALOA TELEBISTA

# Zure esku dago!




## UDAKO IKASTARO TRINKOAK

**Helduentzako eta gaztetxoentzako IKASTARO TRINKOAK ingelesez, frantsesez eta alemanez.**

Hasiera: **uztailak 1**

Ordu-kopurua: egunean 2 edo 4 ordu

**Haurrentzako IKASTARO TRINKOAK**  ingelesez edo frantsesez + **jarduera-programa** egunero.

Adina: 4 eta 11 urte bitartean

Hasiera: **uztailak 1**



Matrikula dohainik **2013/05/30a** baino lehen izena ematen baduzu. **ERRESERBATU ZURE PLAZA!** San Ferminetako besta-eguna berreskuratzen ahal dira.

Koskontako bidea, 11, behea **LESAKA** 948 637 135 [www.acornlanguages.com](http://www.acornlanguages.com)



NAFARROAKO  
BERTSOLARI  
TXAPELKETA

**13**

# ZIRKULAR SARE SOZIALA

## FINALA

**MARTXOAK 23 LARUNBATA**  
17:00etan

**IRUÑEKO ANAITASUNA**  
KIROLDEGIAN



SARRERAK SALGAI : [WWW.BERTSOSARRERAK.EU](http://WWW.BERTSOSARRERAK.EU)



LUR DANTZALEKUAN  
Elizondo

APIRILAK 13  
LARUNBATA

22:00

# EUSKARAZKO KOMUNIKABIDEEN ALDEKO KONTZERTUA

10€

★ Petti ★  
★ Anje Duhalde ★  
★ Erramun Martikorena  
eta Joxe Anjel ★  
★ Amaia Zubiria eta Edorta ★



Anima zaitezte!!

antolatzaileak:  
Berria | Ttipi-Ttapa Aldizkaria  
Xaloa Telebista | Xorroxin Irratia  
Baztango Euskalgintza

laguntzaileak:

